

Ikuspegi Demografikoa 2018

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia VI-2018

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.eus

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

AURKEZPENA

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 1980ko hamarkadatik dihardu estatistika-eragiketak egiten, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriarekin lotutako fenomeno demografikoei buruzko informazioa eskuratzeko, baita biztanleen adin- eta sexu-egituraren nondik norakoak emateko ere. Hala, jaiotzen estatistika, heriotzen estatistika eta migrazio-mugimenduen estatistika egiten ditu, besteak beste.

Bestalde, data jakin batean biztanleriaren egitura kontabilizatzen eta deskribatzen duten eragiketak ere egiten ditu: 1981, 1991, 2001 eta 2011ko biztanleria- eta etxebizitza-zentsuak; 1986ko biztanleen udal-errolaren berrikuntza; 1996ko, 2006ko eta 2016ko biztanleria- eta etxebizitza-estatistikak; 2001 eta 2017 bitarteko biztanleen udal-estatistika. Era berean, ezkontzen estatistikak, nahiz eta biztanle kopuruetan eragin zuzenik izan ez, azalpenak ematen ditu ugalkortasunaren bilakaerarekin lotuta. Aurrekoez gain, ugalkortasunaren eta ezkontza-tasen indizeak ere baliatu dira, 2016ko Inkesta Demografikotik hartuta.

Panorama demografikoaren helburua zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-egituraren bilakaeraren ikuspegia ematea eta bilakaera horretan eragin duten fenomeno demografikoak aztertzea, eragiketa horietako bakoitzak eskainitako informazioa baliatuta. Lan honek beste estatistika-indize bati ere heltzen dio, lurraldeetako eta eskualdeetako indize demografikoak biltzen dituen: Adierazle Demografikoak, alegia.

1980ko hamarkadatik hona, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak bilakaera kontrastatuak izan ditu hilkortasunean, jaiotza-tasan eta migrazio-mugimenduetan, eta horiek guztiek eragin dute, populazioaren bolumenean ez ezik, adinaren eta sexuaren arabera banaketan ere. Nabarmenezkoak dira, alde horretatik, 1990eko hamarkadako erdialdera arteko ugalkortasunaren jaitsiera ikusgarria eta 2000. urtetik aurrerako etorkinen etorrera jendetsua.

Fenomeno demografikoen analisisa ez da amaitzen honako lan honekin. Aitzitik, ugalkortasunaren, hilkortasunaren, migrazio eta ezkontza-tasaren gaineko informazio sakonagoa nahi izanez gero, eskura dago Eustaten webgunera, datu zehatzagoak eskatzeko aukera ere ematen duena.

Josu Iradi Arrieta
Zuzendari nagusia

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. POPULAZIOA	4
1.1. BILAKAERA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA	4
1.1.1. LURRALDEKA	4
1.1.2. ESKUALDEEN ETA UDALERRIEN ARABERA	5
1.2. EGITURAREN BILAKAERA, ADINEN ARABERA	10
1.3. BIZTANLEEN JAIOLEKUA	13
2. JAIOTZAK	15
2.1. JAIOTZEN BILAKAERA	15
2.2. UGALKORTASUNAREN ADIERAZLEAK	17
2.3. AMEN EZAUGARRIAK	19
2.4. ERDITZEEN EZAUGARRIAK	22
3. HERIOTZAK	23
3.1. HERIOTZEN BILAKAERA	23
3.2. BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA	24
3.3. BILAKAERA, HERIOTZAREN ERAGILEEN ARABERA	26
4. EZKONTZAK	29
4.1. EZKONTZEN BILAKAERA	29
4.2. EZKONTZEN EZAUGARRIAK	31
4.3. EZKONBERRIEN EZAUGARRIAK	34
5. MIGRAZIOAK	37
5.1. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK ETA -SALDOAK	37
5.2. KANPOKO MIGRAZIOAK	39
5.3. BARRUKO MIGRAZIOAK	41
5.4. MIGRAZIOAREKIN DUEN LOTURA	42
6. ONDORIOAK	44

SARRERA

Espazio-eremu jakin bateko biztanleriaren bolumena ez da aldaezina denboran zehar; izan ere, ugalkortasunaren, hilkortasunaren eta biztanleria horren mugikortasunaren konbinazioek eragiten diote. Demografiaren helburu nagusietako bat zera da, aldaketa horiek zergatik gertatzen diren ulertzea, inguruko egitura sozial eta ekonomiko bertsuko gizarteekin alderatuta. Biztanleriak ez dira ezberdin hazkunde-erritmoagatik bakarrik, baita adinaren arabera osaketagatik ere; alegia, haur, gazte, heldu, zaharren pisu erlatiboagatik.

Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-kopuruaren bilakaera eta adin-egitura aztertuko dira, 1981etik 2016ra, oraingo eta lehengo hilkortasun, jaiotza-tasa eta migrazio-mugimenduen ondorio gisa; alegia, biztanleria denbora-une bakoitzean berritzen, ugaltzen edo murrizten duten fenomenoaren arabera. Aldi berean, biztanleriaren adin eta sexuaren arabera egiturak berak eragiten die jaiotza-tasari eta hilkortasunari; eta, immigrazioen eta emigrazioen arteko aldea (positiboa zein negatiboa) kontuan hartuz gero, erlazio anitzeko sistema ateratzen zaigu: faktoreek emaitza baldintzatzen dute sistema honetan baina, era berean, emaitzak ere baldintzatzen ditu faktoreak.

Gizarte baten bilakaera demografikoaren ikerketa beharrezkoa da iragana ulertzeko eta etorkizuneko joera demografikoaz hipotesiak egiteko, baina oso zaila da hipotesiekin asmatzea, sistema harreman anizkuna denez –eta, gainera, beste zenbait baldintza tartekatzen dira, ekonomikoa, esaterako, zeinak asko eragiten baitie migrazio-fluxuei–, batez ere denboran oso aurrera egiten badugu.

Analisi hau egiteko, Eustatek biztanleriaren bolumen eta egiturari eragiten dieten fenomeno demografikoez berak burututako estatistika-eragiketetatik lortutako datuak erabili ditu, bai autonomia-erkidego osoari erreparatuta, bai geografia-eremu txikiagoetan (lurraldeak, eskualdeak eta udalerriak). Azterketaren denbora-eremuari dagokionez, honako aldi hartu hartu da: 1981eko biztanleria- eta etxebizitza-zentsutik 2016ko biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistikara artekoa (azaroaren 1a hartuta erreferentzia gisa). Jaiotzak, heriotzak, ezkontzak eta tankerako fenomeno demografikoak aztertzeke, 35 urtetik gorako aldia hartu da –hau da, 1976 eta 2016 arteko tarte–, bilakaeraren ideia zabalagoa eman ahal izateko. Migrazioei buruzko datuak 1988an hasten dira, urte horretan argitaratu baitzuen Eustatek migrazio-mugimenduen estatistika.

1. POPULAZIOA

Biztanleen udal-estatistikari esker, urtero jarraipena ematen zaie zentsuek, biztanleen udal-eroldaren eguneratzeek eta biztanleriari eta etxebizitzetako buruzko estatistikek biztanleriaren gainean emandako kopuruei. Gainera, demografia-gertakarien (berezko mugimenduen eta migrazioen) intentsitateari esker, konparatu liteke zer ekarpen egiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko eremu espazialen (lurralde historikoen, eskualdeen, udalerrien...) zenbakizko aldakuntzei.

Beraz, helburua zera da, EAEko udalerrietan errolden arteko aldian dagoen zuzenbideko biztanle kopuruari buruzko datu eguneratuak urtero ezagutaraztea, erreferentzia gisa urte bakoitzeko urtarilaren 1a hartuta.

Analisi hau behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da bertan aztertzen ditugun biztanle kopuruaren aldaketak lurralde-eremuen taldekatze-mailaren arabera antolatu ditugula, maila txikienetik handienara: Euskal Autonomia Erkidegoa, lurralde historikoak, eskualdeak eta udalerriak, betiere neurriaren arabera taldekatuta.

1.1. BILAKAERA, EREMU GEOGRAFIKOEK ARABERA

1.1.1. LURRALDEKA

2016ko azaroaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoak orotara 2.176.577 biztanle zituen: % 14,9 Araban, % 52,4 Bizkaian eta % 32,7 Gipuzkoan. 1981eko martxoaren 1ean, 2.141.809 biztanle zituen Euskal Autonomia Erkidegoak, baina lurraldeetan banaketa desberdixeagoa zen: Araban % 12, Bizkaian % 55,5 eta Gipuzkoan % 32,4. Azken 35 urte hauetan biztanleria-bolumen osoak eta lurraldeen arabekoak behera egin du, eta argi eta garbi bi epealdi bereizten dira: batetik, 1981etik 2001era eta, bestetik, 2001etik 2011ra. Badirudi 2012tik aurrera nobedadeak gerta daitezkeela biztanleriaren aldakuntzan.


Biztanleen kopuru handiek izan duten bilakaera aztertzean, zera ikusten da, EAEko biztanleen kopuruak etengabe egin zuela behera 1980ko hamarkada hasieratik 2001. urtera arte, baina beherapena moteltzen joan zela aldi horren amaieran. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko zentsuarterteko hazkunde-tasak joera aldatu du 2001 eta 2011 bitarteko azken tarte horretan. Aztertu diren errolden arteko lehenengo lau aldietan (1981-1986, 1986-1991, 1991-1996 eta 1996-2001), tasa horiek $-0,1\%$ eta $-0,3\%$ artean ibili ziren. Hala, 2001-2006 aldian tasak kopuru positiboak izan zituen: $0,4\%$ ko hazkundera. 2006-2011 aldian, berriz, $0,5\%$ eko igoera izan zuen. Urte horretatik aurrera, biztanleriak behera egin du; 2013ko urtarilaren 1era arte beherakada txikia izan da ($-0,03\%$), baina joera-aldaketa ageri da inondik ere.

1981etik 2001aren bukaerara, Euskal Autonomia Erkidegoak 59.222 biztanle galdu ditu; hau da, biztanleriaren % 2,8. Aldiz, 91.446 biztanle gehiago erregistratu zituen (% 4,4) 2001 eta 2011 bitartean. Beraz, azken 10 urteetan nabarmen berreskuratu du aurreko 20 urteetan galdutako biztanleen kopurua. Aztertu diren azken bost urteetan, biztanleriak 3.238 lagun egin du behera; hala eta guztiz ere, EAEko biztanleen kopuruak 1981ean baino handiagoa izaten jarraitzen du.

Gainerako lurralde historikoetan ez bezala, Araban etengabe gehitu zen biztanleria kopurua; hau da, aztertu diren zentsuarterteko aldi guztietan biztanle gehiago izan zituen 2011 bitartean; hain zuzen, 1981etik 2001eko azarora 28.537 pertsona gehiago erregistratu ziren, % 11ko hazkundera, alegia. Denbora-tarte berean, Bizkaia eta Gipuzkoak biztanleak galdu dituzte. Bi horien artean, Bizkaia

nabarmentzen da, 66.641 laguneko galera izan baitu; hau da, biztanleria osoaren % 5,6. Gipuzkoak urte horietan 21.118 biztanle galdu ditu, hots, biztanleria osoaren % 3 baino gehiago.

1. grafikoa. Zentsuarteko hazkunde-tasaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%) 1981/03/01 – 2016/11/01



2001tik aurrera, Bizkaiak eta Gipuzkoak biztanle gehiago izan dituzte, baina azken lurralde horrek bakarrik konpentsatu du azken 20 urteetako galera (29.334 pertsonarekin). Bizkaiak 29.769 biztanle gehiago ditu, baina hori aurreko bi hamarkadetan galdutako kopuruaren erdia baino gutxiago da. Arabak, 10 urte hauetan, aurreko 20 urteetan baino biztanle gehiago irabazi ditu (32.343).


Nolanahi ere, egoera aldatu egin da 2011tik aurrera. Nahiz eta Arabak 2.600 biztanle baino gehiago irabazi 2016ko azaroaren 1era arte, 1981etik izan den zentsuarteko hazkunderik apalena da. Hala, 2013 eta 2014 artean ere biztanleak galdu zituen 2012arekin alderatuta. Bizkaiari dagokionez, 12.800 biztanle gutxiago dira, eta Gipuzkoak, berriz, 6.909 biztanle gehiago ditu. Azken datu horri esker, EAE osoko biztanleen galera ez da horrenbestearinokoa.

1.1.2. ESKUALDEEN ETA UDALERRIEN ARABERA

Hiriburuak hartzen dituzten hiru eskualdeek 2016an Erkidegoko biztanleria osoaren bi herenak baino gehiago biltzen dituzte; Arabako Lautadan EAEko biztanleria osoaren % 12 bizi da, Donostialdean % 15 eta Bilbo Handian, berriz, % 40. 1981eko datuei erreparatzen baldin badiegu, lehendabizikoan % 9 bizi zen, eta Bilbo Handiak, ostera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztien % 44 biltzen zuten. Donostialdeak, berriz, egungo portzentaje bertsuak ageri zituen orduan ere.

1981 eta 2001 bitarteko aldiko zentsuarteko hazkunde-tasaren arabera, gure erkidegoko hogeik eskualdeetatik zortzik soilik izan dituzte tasa positiboak. Portaera positiboa izan zutenen artean, nabarmentzekoak dira Arabako Lautada, Gorteia Inguruak eta Plentzia-Mungia % 0,5etik gorako tasekin; kontrako aldean, aldiz, Debabarrena ageri da, -% 1eko tasarekin.

2. grafikoa. Zentsuarteko hazkunde-tasak, eskualdeka (%). 1981/03/01 – 2016/11/01



Alabaina, 2001 eta 2011 bitarteko aldirian eskualde bakarrean egin zuen behera biztanleen kopuruak: Debagoienean. Arabako Haranetan eta Gorteialdean % 2tik gorako zentsuarteko hazkunde-tasak izan dira; Debabarrena, Bilbo Handia eta Markina-Ondarroako tasek, aldiz, ez dute % 0,3 gaitu.

Hala ere, 2011 eta 2016 bitartean bederatzi eskualdetan jaitsi da biztanleria; horien artean Arabako Mendialdea nabarmen da, % 1,5eko jaitsierarekin. Bilbo Handiak azken bost urteetan zentsuarteko hazkunde negatiboa izan du, -% 3koa, eta ia 15.800 biztanle galdu ditu.

2016ko azaroaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten 251 udalerriek portaera desberdinak izan dituzte kontuan hartu ditugun denbora-tarteetan. 1981eko eta 2001eko biztanleria-eta etxebizitza-zentsuen artean 105 udalerri errola arteko hazkunde-tasa positiboak izan zituzten; baina 2001 eta 2016 bitartean, 196 udalerrian egin zuen gora biztanleen kopuruak. Aldiz, 2011 eta 2016 bitartean 133 udalerri erregistratu dituzte tasa positiboak.

Tasen gorako eta beherako intentsitateak ere ezberdinak izan dira aldi bi horietan. Hala, 1981. eta 2001. urteen artean hazkunderik handiena izan zuen udalerria Burgelu izan zen (% 3,6), eta beherakada handiena izan zuena, berriz, Olaberria (–% 2,2). 2001 eta 2016 bitartean, Erriberabeitiko biztanleen kopurua % 5,2 hazi zen baina Arabako beste udalerri batean kontrakoa gertatu zen: Harana, –% 2,2ko beherakada, alegia.

Udalerri guztiak bost kategoriatan sailkatu ditugu, 2016ko azaroaren 1eko biztanleen kopurua aintzat hartuta:

1. udalerri handiak, 100.000 biztanletik gorakoak;
2. udalerri ertainak, 40.001-100.000 biztanle artekoak;
3. udal ertain-handiak, 20.001-40.000 biztanle artekoak;
4. udal ertain-txikiak, 10.001-20.000 biztanle artekoak;
5. udalerri txikiak, 10.001 biztanletik beherakoak.


Populazio handiena duten udalerri-kategoriek biztanleak galdu dituzte 1981 eta 2016 artean, baina udalerri handietan murrizketa hori 1981 eta 2001 artean gertatu zen, beherakada 122.417 biztanlekoa izan baitzen. Nolanahi ere, 21.399 biztanle berreskuratu zituen hurrengo 15 urteetan. Udalerri ertainetako prozesua kontrakoa izan zen: 1981 eta 2001 bitartean, 4.147 pertsona irabazi zituzten, baina 2001 eta 2016 artean 8.056 biztanle galdu. Hori dela eta, amaiera balantzea negatiboa da. Gainerako udalerri-taldeek irabazi egin dituzte biztanleak. Nabarmenezkoak dira ertain-handiak, 72.543 biztanle gehiago baitituzte orotara. Datu horri gaineratu behar zaio gainerako bi taldeetan izandako irabazia, nahiz eta, azken kasu horretan, hazkunderen bi heren 1981 eta 2001 bitartean erregistratu zen.

Udalerri batzuk kategoriaz aldatu dira, biztanleak galdu edo irabazi dituztelako. Kasurik nabarmenena Barakaldo izan zen, 2001eko zentsuan 100.000 biztanle baino gutxiago izan baitzituen. Errearteria eta Sestao bigarren kategoriatik hirugarrenera pasatu ziren, Laudio eta Pasaia hirugarrenetik laugarrenera, eta Ondarroa eta Legazpi, berriz, laugarrenetik bosgarrenera. Beste udalerri batzuk kategoriaz igo dira, Zarautz adibidez, laugarren kategoriatik hirugarrenera igaro baita. Amurrio, Arrigorriaga, Oiartzun eta Sopela bosgarren kategoriatik laugarrenera pasatu dira.

Aldakuntza erlatiboari dagokionez, 10.000 biztanletik gorako udalerrien artean, hona hemen 1981 eta 2016 bitartean % 1etik gorako gehikuntza izan dutenak: Sopela (% 2), Etxebarri (% 1,5), Mungia (% 1,2), Hondarribia (% 1,2) eta Zarautz (% 1,1). Aldiz, biztanle kopuruaren jaitsiera erlatibo handiena, –% 0,5etik gorakoa, honako udalerri hauek izan dute: Sestao (–% 1,1), Eibar (–% 0,9), Basauri (–% 0,7), Pasaia eta Portugalete (–% 0,6) eta Arrasate (–% 0,5).

Hiru lurralde historikoetako hiriburuek 100.000 biztanle baino gehiago dituzte eta haietan biltzen da Erkidegoko biztanleria osoaren % 35. Zentsuarterko hazkunde-tasa positiboa izan da Gasteizen eta Donostian, aztertutako bi aldi horietan; Bilbon, aldiz, ez da hori gertatu. 1981. urteaz gero 14.018 biztanle gehiago izan dira hiru udalerrietan, baina batez ere Gasteizen eta Donostian izan diren igoeren ondorioz (53.337 eta 11.430 biztanle gehiago, hurrenez hurren). Bilbok, aldiz, 50.749 biztanle galdu ditu. Halaber, 2011 eta 2016 bitartean Bilbok eta Donostiak 8.616 biztanle galdu zituzten. Gasteizek, berriz, 2.921 biztanle gehiago ditu aldi horretan.

3. grafikoa. Zentsuarterko hazkunde-tasak, udalerriaren tamaina aintzat hartuta (%). 1981/03/01 – 2016/11/01




2016ko azaroaren 1ean, 40.001 eta 100.000 biztanle bitartean dituzten sei udalerrri daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Horiek guztiek Erkidegoko biztanleria osoaren % 17,4 hartzen zuten 1981ean, eta 2016an, ostera, % 16,9 biltzen zuten; hau da, 3.909 biztanle galdu zituzten. Beraz, 35 urte horietan errolda arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da: $-\% 0,03$. Portugaletetik, Santurtzik eta Basaurik biztanleak galdu dituzte 1981 eta 2016 bitartean, 31.923 biztanle gutxiago. 1981 eta 2001 bitartean, Getxok urtean % 0,9ko gehikuntza izan zuen, baina 2001 eta 2016 bitarteko aldiaren tasa negatiboa izan zuen ($-\% 0,4$); udalerrri horren guztirako saldoa positiboa izan da. Barakaldori kontrakoa gertatu zaio. Lehenengo hogeita urteetan tasa negatiboa izan zuen ($-\% 0,9$) baina azken hamabi urteetan positiboa (% 0,3). Hala ere, aldi osoko saldoa negatiboa izan da ($-\% 0,4$). Irunek bakarrik irabazi dituzte biztanleak 1981 eta 2011 bitartean, % 0,4 gehiago, alegia. Azkeneko bost urteetan, talde horretako udalerrri guztiek galdu dituzte biztanleak, 7.078 pertsona gutxiago. Horien herenak Getxori dagozkie.

Halaber, 20.001 eta 40.000 biztanle dituzten bederatzi udalerririk Erkidegoko biztanleria osoaren % 12,5 hartzen dute, baina 1981 eta 2016 bitartean 7.849 biztanle gutxiago zituzten. Aldi horretan, hauek lortu dituzte zentsuarterko hazkunde-tasa positiboak: Zarautzek (% 1,1), Durangok eta Leioak (% 0,9), Galdakaok (% 0,3) eta Hernanik (% 0,1). Bestalde, Sestaok, Eibarrek, Arrasatek, Errenteriak eta, hein txikiagoan izan arren, Erandiok guztira 35.222 biztanle gutxiago izan dituzte. Galdutako horietatik 13.157 Sestaokoak ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 15,4 10.001 eta 20.000 biztanle arteko 23 udalerritan bizi zen. Pasaiaren kasua nabarmenduko genuke, zentsuarterko hazkunde-tasa negatiboa izan baitzuen ($-\% 0,6$); bestalde, % 1etik gorako tasa positiboak dituztenen artean, honako hauek ageri ziren: Sopela (% 2,0), Etxebarri (% 1,5), Mungia eta Hondarribia (% 1,2). Udalerrri-talde horrek guztira 21.282 biztanle irabazi ditu 1981 eta 2016 bitartean, eta, ondorioz, urteko aldakuntza bateratua % 0,29koa da. Kategoria honetako hamahiru udalerririk biztanle gehiago izan dituzte, 38.365 gehiago;

hau da, hasierako biztanleriaren % 24,2. Biztanleak galdu zituzten hamaika udalerriek, ordea, 17.083 biztanle gutxiago izan zituzten, hau da, biztanleria osoaren % 10,9 galdu zuten.

4. grafikoa. Zentsuarteko hazkunde-tasak, udalerrien arabera (%). 1981/03/01 – 2016/11/01




Azkenik, 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten gainerako 209 udalerriek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztien % 19,9 biltzen zuten 2016an, nahiz eta 35 urte lehenago guztizkoaren % 18,6 izan. Horietatik 136k zentsuarteko hazkunde-tasa positiboa zuten, eta 73k, berriz, negatiboa 1.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien artean, % 3tik gorako tasa positiboak izan zituzten hauek nabarmendu behar dira: Araban, Erriberabeitia (% 3,6) eta Dulantzi (% 3,1). Bestalde, % 2 eta % 3 bitarteko hazkunde Zigoitian (% 2,7), Iruran (% 2,6) eta Bakion (% 2,2) ageri da (Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko datuei erreparatuta, hurrenez hurren). Orotara, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek 39.392 biztanle gehiago izan zituzten 1981 eta 2016 bitartean. Udalerritalde horretan, biztanle-kopurua gehitzen dutenek 59.470 biztanleko igoera lortu dute, hau da, 1981eko biztanleriaren % 26,3. Biztanleak galtzen dituztenek, aldiz, 20.078 pertsona galdu dituzte, hau da, hasierako biztanle-kopuruaren % 12.

1.2. EGITURAREN BILAKAERA, ADINEN ARABERA

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren egiturari dagokionez, adin-tarte handien arabera banaketaren bilakaerak erakutsi du nabarmen eta etengabe galdu dela biztanle kopurua adin txikienetan, eta, era berean, gehitu egin dela adinekoenen kopurua. 1981etik 2016ra bitartean, 65 urte eta gehiagoko biztanleria % 9,2tik % 21,6ra pasatu da, bikoiztu, alegia. Gazteen tartearen erritmo horretantxe murriztu da: 1981ean hiru pertsonatik batek 20 urte baino gutxiago zituen; 2016ko azaroaren 1ean adin horietan % 18,3 besterik ez, 65 urte eta gehiagokoak baino hiru puntu gutxiago. Are nabarmenagoa izan da adinean gehien aurrera egindako (85 urte eta gehiago) pertsonen kopuruaren igoera: 5 aldiz baino gehiago ugaritu dira azken 35 urte hauetan, eta biztanleria osoaren % 3,7 dira.

2016ko ehunekoak ez dira berdin agertu Europako herrialdeetan, batez ere gazteen taldeari dagokionez, denetatik txikiena izan baita talde hori. Hots, Europar Batasuneko 28 herrialdeetan talde hori biztanle guztien % 21 zen, ehuneko hiru puntu gehiago EAEn baino. Era berean, 65 urteko eta gehiagoko taldearen ehunekoa Italiak bakarrik gainditu du, herrialde hartan % 22,3tik gorakoa baita proportzioa.

5. grafikoa. EAEko biztanleriaren piramideak 1981 eta 2016




Adinean aurrera egindako biztanleen hazkunde hori ez da modu homogeneoan gertatu Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde guztietan. Muturretan daude Arabako Mendialdea eta Plentzia-Mungia eskualdeak: lehenengoan, 65 urteko eta gehiagoko biztanleak % 27 dira, ia ehuneko lau

puntu gehiago, biztanle zaharren kopuru handiena izan duen bigarren eskualdearekin alderatuta; aldiz, Plentzia-Mungia eskualdeko biztanleen artean, biztanle zaharrenak % 16,2 bakarrik dira.

Salbuespen batzuk gorabehera, Erkidegoko biztanle zaharren kopurua gainditu duten eskualde horiek azken urteotan biztanleak galdu edo oso gutxi gehitu dituzte. Arabako Mendialdearen parean daude Markina-Ondarroa, Debagoiena eta Debabarrena, Bilbo Handia eta Gernika-Bermeo. Bestalde, biztanleen kopurua gehitu egin da aztertutako aldian, Erkidegoko batez bestekotik beherako ehunekoak izan dituzten eskualdeetan. Egoera horretan dagoen eskualde nabarmenena Plentzia-Mungia da, baina beste batzuk ere badira egoera berean: Gorbeialdea, Arabako Lautada, Urola Kosta, Durangaldea eta Bidasoa Beherea.

Arabako Haranak eskualdearen kasua ere oso adierazgarria da; 1981 eta 2016 bitartean biztanleen hazkunde handiena izan duen eskualdea izan arren, 65 urte eta gehiagoko biztanleen ehuneko handia du. Antzeko zerbait gertatzen da, neurri txikiagoan bada ere, Arabako Errioxan. Erkidegoko biztanle zaharrenen ehunekoarekin alderatuta, bi eskualde horietan beti izan dira biztanle horien ehuneko handiagoak aztertutako aldian. Horrenbestez, biztanleen hazkundeak ez du bermatzen adin-egitura berregokituko denik.


6. grafikoa. Adin-talde handien hazkunde-tasak, eskualdeen arabera (%).
1981/03/01 – 2016/11/01



Euskal Autonomia Erkidegoan, 65 urteko eta hortik gorako biztanleak 0,3 ziren 16 urtetik beherako biztanle bakoitzeko 1981ean; Espainian baino harreman apalagoa, Estatuan 0,4 baita. Europa aldera begiratuta ere, harreman handiagoak ageri dira hainbat herrialdetan, hala nola Suedian eta Alemaniak (0,8) edota Belgikan eta Danimarkan (0,7). 2016an, ordea, harreman hori 1,4ra igaro zen. Italiak eta Alemaniak bakarrik gainditzen dute. Suediak, Belgikak eta Danimarkak, aldiz, 1981ean zuten harreman hori handitu egin dute, eta egun 64 urtetik gorako pertsona bat dute 16 urtetik beherako biztanle bakoitzeko.

Hala, 1981ean 0,8 baino harreman handiagoa zuten eskualdeak Arabako Haranak eta Mendialdea ziren. Haiek ere harreman hori handitu egin dute, eta 2016an 65 urtetik gorako 2,2 pertsona dituzte 16 urtetik beherako biztanle bakoitzeko. Azken urte horretan, 1 inguruko proportzioa ageri zuten bi eskualdeak (Gorbeialdea eta Plentzia-Mungia) Euskal Autonomia Erkidegoaren batezbestekoaren gainetik zebiltzan 1981ean.

7. grafikoa. 65 urteko eta hortik gorako pertsonen kopurua, 16 urtetik beherako biztanle bakoitzeko, udalerriaren arabera. 2016/11/01



1981ean, 16 udalerrik zituzten 16 urtetik beherako 5 pertsona edo gehiago 64 urteko edo hortik gorako biztanle bakoitzeko; horien artean, Ermua, Etxebarri, Lasarte-Oria eta Anoeta nabarmentzen ziren, batzuk 7 eta gehiagorekin. Alabaina, urte horretan 35 udalerrik adinean aurrera egindako pertsona 1 edo gehiago zituzten gazte bakoitzeko, eta harreman hori 1,5 baino handiagoa zen

Ibarrangelun, Meñakan, Gizaburuagan edota Arrietan. 2016an, 15 urtetik beherakoen eta 64 urtetik gorakoen arteko harremana murriztu egin da, eta lau udalerri bakarrik daukate zahar bakoitzeko 2 gazteko harremana: Irurak, Baliarrainek eta Dulantzik, udalerri txikiak guztiak ere. Beste muturrean, Haranak 7,5 zahar ditu gazte bakoitzeko; ondoren ditu Lagran 7rekin eta Añana, Elantxobe eta Moreda 4rekin.


Hiru udalerritan (Ermua, Lasarte-Oria eta Laudio), adinaren arabera biztanleen egitura nabarmen aldatu da: hala, horietan gazteak nabarmen ugariago ziren 1981ean, eta, gaur egun, ia 64 urtetik gorako 2 pertsona dituzte 15 urte eta gutxiago dituztenekin alderatuta. Hala, Ermuak gazteen % 65 galdu du 1981 eta 2016 bitartean, eta adinekoak, berriz, % 425 ugaritu dira. Lasarte-Oriari dagokionez, gazteak % 58 gutxiago dira eta zaharrak % 387 gehiago. Laudion, azkenik, % 64 gutxiago dira gazteak eta % 292 gehiago zaharrak.

1.3. BIZTANLEEN JAIOLEKUA

2016ko azaroaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 28 EAetik kanpo jaioa da. Talde horren barruan, % 32 atzerriko herrialderen batean jaiotakoak dira; hau da, talde horretako hiru lagunetatik bat.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotakoen ehunekoak egonkor jarraitzen du azken 15 urteetan, baina pertsona horien jatorria aldatu egin da. Denbora-tarte horretan, ia % 7 handitu da atzerrian jaio eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen kopurua. Bestalde, Estatuko gainerako tokietan jaio eta EAEn bizi direnak gutxitu egin dira, % 24,7 izatetik % 18,9 izateraino.

8. grafikoa. Biztanleak, jaiotako kontinentearen arabera (%), 2016/11/01



Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen % 9,1 atzerrian jaioak dira. Estatu osoan baino ehuneko apalagoa da, % 13,3 baitira Espainian. Euskal Autonomia Erkidegora biztanle gehien helarazten duten herrialdeak honako hauek dira: Maroko (% 10,8), Kolonbia (% 9,2), Errumania (% 8) eta Bolivia (% 5,7). Horietatik, % 52,3 emakumeak dira eta % 47,7 gizonak.

Jaiotako autonomia-erkidegoari erreparatuta, berriz, Euskal Autonomia Erkidegora gehien bidaltzen duen autonomia-erkidegoa Gaztela eta Leon da (% 7,7), eta ondoren Extremadura (% 2,4) eta Galizia (% 1,9). Kontrako muturrean, Balear uharteetan jaiotakoak dira gutxien (% 0,04).

EAEko 55 udalerritan, autonomia-erkidego osoan baino atzerrian jaiotakoen proportzio handiagoa ageri da: 16 Araban daude, eta horietatik 15ek % 10 gainditzen dute (gehienak Arabako Errioxan daude). Mailarik handienak dituzten lau udalerririk Navaridas (% 28), Berriatua (% 16,3) eta Ordizia (% 15) dira.

Beste muturrean, sei udalerririk atzerrian jaiotakoen ehunekoak % 2ko proportziotik behera dauzkate. Lau Gipuzkoan daude (Orexa, Elduain, Aduna eta Mutiloa), bat Bizkaian (Ajangiz) eta beste bat Araban (Harana). Biztanle gutxiko udalerririk dira, guztien artean 1.767.

Hiru hiriburuetan, atzerrian jaiotakoen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoa baino handiagoa da. Gasteiz da hiruretan nagusi, % 12,1ekin. Ondoren Bilbo, % 10,9rekin, eta Donostia, berriz, % 10,2rekin.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako herritarren adinari erreparatuta, alde handiak ageri dira toki batetik bestera. Atzerrian jaiotako pertsonak batez beste 36,8 urte dituzte. Beste autonomia-erkidego batzuetan jaio direnek, berriz, 63,2.


2. JAIOTZAK

Heriotzen, jaiotzen eta ezkontzen estatistikek osatzen dute biztanleriaren mugimendu naturala. 1861. urtean egin zen heriotzen gaineko lehenengo estatistika; eta harrezkero aldi honetan izan diren aldaketa demografikoak eta horien bilakaera ezagutu ditzakegu. Biztanleriaren berezko mugimenduak zehazten ditu, migrazio-mugimenduekin batera, biztanle kopuruaren gorabeherak.

2.1. JAIOTZEN BILAKAERA

1976an, jaiotzen joera beherantz hasi zen eta hala jarraitu zuen 1994ra arte. Urte horretan erregistratu zen, hain justu, jaiotza-tasarik apalena: 15.248 lagun. Ondoren, 1995. urtean, pixkanaka baina etengabe, gora egiten hasi zen jaiotzen kopurua. 2008an 21.315 jaiotza izan ziren. Azken lau urteetan jaiotzen kopurua beherantz hasi zen atzera, eta 2016an 18.240 izan ziren, % 14,4 gutxiago.

9. grafikoa. Jaiotzen tasa gordinen bilakaera (%). 1976-2016



EAEn, jaiotzen tasa gordina ‰ 8,4 izan zen 2016. urtean. 1960ko hamarkadan ‰ 20tik gorakoa izan zen, Espainiako tasatik gora, gainera; harrezkero, eta batez ere 1970eko hamarkadako bigarren erdian eta 1980ko hamarkadako lehenengoan, tasak behera egin du 1995era arte. Urte hartan jaiotzen tasa gordina ‰ 7,3 izan zen. 1996an gorantz hasi zen, 2008ko egoerara iritsi arte. Hala, 9,9 izatera irits zen mila biztanleko, Espainiako batezbestekoaren gainetik (‰ 9,7) edota Italia (‰ 9), Portugal (‰ 8,5) edota Alemania (‰ 8,4) baino ere gorago, baina Frantzia (‰ 12,6) edota Irlandan (‰ 15,7) erregistratutako proportzioen azpitik. 2009tik ehuneko hori murriztu egin zen 2016ra bitartean, eta Portugalen tankera bereko proportzioa lortu zuen (‰ 8,4), Italiak baino gehiagorekin (‰ 7,8), baina Alemaniak 1,2 punturekin aurrea hartuta.

1. taula. Bizirik jaiotakoak eta jaiotzen tasa gordinak (%), lurraldeka. 1975-2016

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Jaiotako umeak	Tasa	Jaiotako umeak	Tasa	Jaiotako umeak	Tasa	Jaiotako umeak	Tasa
1975	39.646	19,1	4.833	20,4	22.075	19,1	12.738	18,7
1976	41.100	19,7	4.809	20,1	22.924	19,8	13.367	19,6
1977	38.806	18,5	4.634	19,0	21.754	18,6	12.418	18,1
1978	35.657	16,8	4.560	18,4	19.987	17,0	11.110	16,1
1979	31.835	15,0	4.163	16,5	18.356	15,5	9.316	13,5
1980	28.812	13,5	3.917	15,3	16.569	13,9	8.326	12,0
1981	27.255	12,7	3.710	14,3	15.419	13,0	8.126	11,7
1982	25.670	12,0	3.436	13,2	14.142	11,9	8.092	11,6
1983	23.920	11,1	3.374	12,8	13.092	11,0	7.454	10,7
1984	22.411	10,4	3.108	11,7	12.426	10,5	6.877	9,9
1985	20.970	9,8	3.008	11,2	11.582	9,8	6.380	9,2
1986	20.094	9,4	2.693	10,0	10.981	9,3	6.420	9,3
1987	18.593	8,7	2.572	9,5	10.148	8,6	5.873	8,5
1988	18.021	8,5	2.577	9,5	9.724	8,3	5.720	8,4
1989	17.024	8,0	2.389	8,8	9.024	7,7	5.611	8,2
1990	16.361	7,8	2.290	8,4	8.724	7,5	5.347	7,9
1991	16.228	7,7	2.276	8,3	8.557	7,4	5.395	8,0
1992	16.250	7,7	2.221	8,0	8.587	7,5	5.442	8,0
1993	15.801	7,5	2.239	8,1	8.203	7,1	5.359	7,9
1994	15.248	7,3	2.024	7,2	7.991	7,0	5.269	7,8
1995	15.322	7,3	2.082	7,4	7.879	6,9	5.361	7,9
1996	15.987	7,6	2.249	8,0	8.148	7,2	5.590	8,3
1997	16.325	7,8	2.226	7,9	8.333	7,4	5.766	8,6
1998	16.113	7,7	2.249	7,9	8.216	7,3	5.648	8,4
1999	16.787	8,1	2.321	8,2	8.599	7,6	5.867	8,7
2000	17.316	8,3	2.487	8,8	8.818	7,9	6.011	8,9
2001	17.647	8,5	2.436	8,5	9.040	8,1	6.171	9,2
2002	18.133	8,7	2.491	8,6	9.372	8,4	6.270	9,2
2003	19.267	9,2	2.694	9,2	9.806	8,8	6.767	9,9
2004	19.594	9,3	2.809	9,5	9.996	8,9	6.789	9,9
2005	19.715	9,3	2.792	9,3	10.122	9,0	6.801	9,9
2006	20.043	9,4	2.918	9,6	10.087	8,9	7.038	10,2
2007	20.596	9,6	3.027	9,8	10.416	9,1	7.153	10,4
2008	21.315	9,9	3.209	10,3	10.861	9,5	7.245	10,4
2009	20.928	9,7	3.224	10,2	10.540	9,2	7.164	10,2
2010	21.159	9,7	3.346	10,5	10.598	9,2	7.215	10,3
2011	21.180	9,7	3.429	10,7	10.687	9,0	7.064	10,0
2012	20.533	9,4	3.293	10,3	10.342	9,0	6.898	9,8
2013	19.118	8,8	3.099	9,7	9.732	8,5	6.287	8,9
2014	19.378	8,9	3.277	10,3	9.740	8,5	6.361	9,0
2015	18.851	8,7	3.159	9,8	9.331	8,2	6.361	9,0
2016 (a)	18.240	8,4	3.074	9,5	9.151	8,0	6.015	8,4

(a) Behin-behineko

Tasarik handiena Araban izan zen (% 9,5), ondoren Gipuzkoan (% 8,4) eta Bizkaian azkenik. Azken hori, % 8,0 tasarekin, % Euskal Autonomia Erkidegoak 2016an izandako batezbestekotik behera dago. 1976 eta 2016 bitartean, hiru lurraldeetako jaiotzen bilakaera ez da berdina izan toki batetik bestera. Gipuzkoak jaiotza-tasa oso ezberdina izan du. 1988an lurralde horretan mila biztanleko izan

ziren jaiotza tasak EAEkoen azpitik izan ziren; baina hurrengo urteetan EAEk baino tasa altuagoa izan du, baita 1994an ere (EAEko tasa baino 5 hamarren altuagoa) nahiz eta tasarik txikiena izan urte honetan. Bizkaiak soilik izan ditu EAEkoa baino tasa altuagoak aldi horretako lehenengo lau urteetan; lurralde honen tasarik txikiena 1995ean izan zen, ‰ 6,9. Arabak, oro har, EAE osoak baino tasa handiagoak izan ditu, nahiz eta 1994an minimora iritsi zen ‰ 7,2rekin.

Tasa horiek zenbaki absolututan emanda, ikusiko dugu 1976an izandako 41.100 jaiotzatatik 2016an 18.240 jaiotza izatera igaro dela; hau da, jaiotzak ‰ 56 murriztu dira. Azken 40 urteetako jaiotza-tasarik apalena 1994an erregistratu zen, 15.248 jaiotza, hau da, 1976an baino ‰ 63 gutxiago. Bizkaiak izan da EAEko jaiotzen beherakadaren ‰ 60. Eta ez populazioaren neurriagatik bakarrik, baizik eta 1976 eta 2016 bitartean ‰ 60,2ko beherakada izan delako ere bai. Gipuzkoan 40 urte horietan izandako beherakada Euskal Autonomia Erkidego osoan izandakoaren tankerakoa da. Araban, aldiz, beherakada apalagoa izan da askoz: ‰ 36,1.

Eskualdearen arabera izandako jaiotzen kopuruaren bilakaera aldatzen joan da: 1976 eta 2016 bitartean hazkundea izan zen Gorbeialdean (‰ 10,2) eta Bilbo Handian, berriz, gutxitu (‰ 63,6). Horrek eskualdeetan izandako populazioaren neurriaren bilakaera erakusten; izan ere, Arabako Haranetan eta Plentzia-Mungian, nahiz eta jaiotzak murriztu, beherakada ‰ 21,7 izan da, baina Arabako Mendialdean eta Debabarrenean, berriz, ia ‰ 60.

2.2. UGALKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

Informazio hori guztia adierazle bakar batera murrizten badugu, adibidez emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurura, esan daiteke EAEko ugalkortasuna beheko balioetan dagoela, gure inguruko herrietan erregistratzen denarekin alderatuta. 2016an batez besteko seme-alaba kopurua 1,35 izan zen, oso urrun 1975eko batez besteko 2,67 seme-alabetatik, eta oso urrun, halaber, belaunaldien arteko ordezkatzeari lortzeko beharrezkoak diren 2,1etatik. Bizkaiak dauka indizirik apalena, 1,28; Araban, aldiz, emakume bakoitzeko 1,47 seme-alaba dira, eta Gipuzkoa erdian geratzen da, 1,41ekin. Nazioartean, ugalkortasun indizea Italiakoaren eta Portugalgoaren antzeko mailan dago (1,34 seme-alaba), baina Europako batezbestekotik beherago (1,60) eta oso urrun Frantziatik (1,92 seme-alaba) eta Suediatik (1,85). Halaber, Alemaniakoa baino ere apalagoa da, zeina 1,6 seme-alabakoa baita emakume (2002an 1,34 zen).


Datu berriago horiek oinarri hartuta, aurreikus daiteke emakumeen ‰ 75ek gutxienez izango duela seme-alaba bat; horrek esan nahi du emakumeen laurdenek ez dutela izango seme-alabarik; ‰ 50ek gutxienez bi seme-alaba izango dituztela eta hamarretik batek hirugarren bat izango dutela. Horren haritik, hirugarren mailako edo gehiagoko ugalkortasunaren jaitsiera ‰ 90ekoa da, 1975ekin alderatuta.

Eustatek, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan 1980 eta 2010 bitartean izandako ugalkortasunaren bilakaera ere jasotzen du. Urte hori da, hain justu, maila horretako indize demografikoak jasotzen dituen azkena. Ugalkortasunak Erkidego osoan joera bera izan du: 1980 eta 1995 bitartean behera egin zuen eskualde guztietan, gehiago edo gutxiago, eta 1995etik 2010era hobera egin zuen, gutxi izan bazen ere. 1980. urtean, eskualde batean ere ez zen gaititu datu hau: emakume bakoitzeko 2,1 ume izatea. Hurbilen zegoena Arabako Errioxa izan zen, 2,05 umerekin; baina, Debabarrenean emakume bakoitzak 1,25 ume bakarrik izan zituen.

1995era arte ugalkortasunak beherakada handia izan zuen; zazpi eskualdetan soilik ziren seme-alaba bat baino gehiago izan zuten emakumeak. Urola Kostan eman zen indize altuena, baina 1,2 ume baino ez. Horren atzetik Tolosa eta Plentzia-Mungia izan ziren, 1,1 umerekin. Urte horretan, gainera, Arabako Haranek aztertu den aldi osoko ugalkortasun txikiena izan zuten: 0,66 seme-alaba emakume bakoitzak. 2005ean, eskualde guztietan emakume bakoitzak batez beste seme edo alaba bat zeukan.

Hala, 30 urte horietan hiru eskualdetan ugalkortasun-tasa % 34 murriztu da: Bilbo Handian, Arabako Lautadan, eta Donostian (horietan daude hiru lurraldeetako hiriburuak). Gipuzkoako eskualdeetan (Donostian izan ezik) ugalkortasunaren beherakada Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoa baino txikiagoa izan da; Debabarrenak eta Tolosak ere berreskuratu dute, % 17,2 eta % 7,5, hurrenez hurren.

10. grafikoa. Bilakaera, batez besteko seme-alaba kopurua emakumeko. 1976-2016



Emakumeen belaunaldien ugalkortasun-tasaren azterketak zera adierazten du, Inkesta Demografikoaren arabera egiten den moduan, belaunaldi horiek ordeztuko ote diren euren ugaltzitzan izan dituzten seme-alabekin (kopuru horri, era berean, azken deszendentzia ere deitzen zaio). 2016an egindako inkestak erakusten duenez, 1940ko bigarren hamarkadan jaiotako emakumeak izan ziren belaunaldi-ordezkatzea lortu zuten azkenekoak; hau da, batez beste 2,1 seme-alaba izan zituzten. Ondoren emakume-belaunaldien azken deszendentzia apaltzen joan zen, eta 1971 eta 1975 artean jaiotako emakumeen artean 1,4 da. (Tarte horretakoei ematen zaie amaitutzat euren ugaltze-historia.)

Europako herrialde ia guztietan ikusi da murriztu egin dela azken deszendentzia 1940ko hamarkadatik aurrera jaiotako emakumeetan, eta 1960ko hamarkadatik aurrerako emakumeek ez dutela lortzen belaunaldia ordezte, familia-politika anbiziotsuak dituzten herrialdeetan izan ezik (Frantzia, Norvegia edota Suedia). Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik aurrerako emakumeen azken

deszendentziak maila apalagoak ageri ditu (1,51 seme-alaba emakumeko), Alemanian edota Italian belaunaldi horretako emakumeetan baino (1,66 izan zen).


Azken belaunaldien amatasuneko batez besteko adina zaharrenen antzekoa da (egun 75 urte eta gehiago dituztenak), baina kasu horretan horren arrazoia zera zen, hirugarren eta hortik aurrerako seme alabak ia guztizkoaren % 40 zirela; aldiz, 2016an, 40 eta 50 urte bitartean dituzten emakumeen % 8k baino ez dituzte hiru seme-alaba edo gehiago. Belaunaldi berriagoetan, lehendabiziko seme-alabaren batez besteko adina 31 urte da, eta zaharrenetan, berriz, 28 urte.

Hala, 2011n 40 urte baino gutxiago dituzten emakumeen azken deszendentziak ez dirudi berreskuratzeko arrastorik duenik; izan ere, euren bizialdian espero dituzten seme-alaben kopurua, inkestan jasotakoaren arabera, apenas izango da 1,3 baino handiagoa. Nabarmenezkoak dira 1996 eta 2000 artean jaiotakoak, seme-alaba 1 izatea aurreikusten baitute.

2.3. AMEN EZAUGARRIAK

Azken urteetan, jaiotze-tasaren beherakada eragin duten faktoreetako bat amatasunaren adina pixkana atzeratzea izan da. Ama izan ziren emakumeen adinaren araberrako banaketa, aurreko hamarkadetakoekin alderatuta, oso ezberdina izan zen. 2016an, talderik ugariena 34 urtetik gorako emakumeei zegokien; 1990eko hamarkadaren amaierara arte, berriz, aurretik zeuden 25 eta 29 urtera bitartekoak; 1980ko hamarkadan, 20 eta 24 urtera bitartekoak ere aurretik zeuden.


11. grafikoa. Jaiotzen bilakaera, amaren adina aintzat hartuta (%). 1986-2016



2016an haurren bat izandako emakumeen % 83,3k 30 urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 35 eta 39 urte arteko emakumeena da, jaiotza guztien % 37,1. Beste alde batetik, amen herenek 30 eta 34 urte bitartean dauzkate; 30 urte baino gutxiagokoak, berriz, % 16,7 besterik ez dira. 2016an, amen batezbesteko adina 32,9 izan zen, 1981ean baino 4,3 urte gehiago, eta batezbesteko amen adina handia duten herrialdeen gainera, hala nola Italia (31,8 urte), Portugal (31,1 urte) edota Alemania (30,9 urte), haiek ere ugaltze-tasa apalekoak.


Mende honetako lehenengo hamarkadan, 25 eta 34 urte arteko ama-taldeek behera egin zuten, eta beherakada handiena izan zuena 25 eta 29 urte artekoa izan zen (5,6 ehuneko-puntu). Beste muturrean, garrantzi handiagoa hartu dute 25 urtetik beherakoen taldeek eta 35 urte edo gehiagokoek. 2007 eta 2009 bitartean, pixka bat gora egin du 25 urte baino gutxiagorekin ama izandako emakumeen kopuruak atzerriko gazteei esker, ume gehiago izaten baitute.

12. grafikoa. Ezkontzatik kanpoko jaiotzen bilakaera (%). 2002-2016




Azken urteetan, hazteko joera etengabea izan du guraso ezkongabeek izandako umeen ehunekoak. Denbora-tarte zabalago bat hartzen badugu erreferentzia gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan ezkondu gabeko bikoteek izandako seme-alabak 1975ean % 1,5 ziren, 1990ean % 7,7 eta 2001ean, berriz, % 16,3. Hamar urte geroago, ordea, % 34,3 izatera igaro zen, eta 2016an orotara izandako jaiotzen % 43,1 dira.

13. grafikoa. Ezkontza barruko jaiotzen banaketa, ezkontzatik igarotako denbora aintzat hartuta (%). 2016



Euskal Autonomia Erkidegoan 2016an izandako jaiotzen % 21,4 atzerrian jaiotako emakumeek erdituak dira; ehuneko hori 2001ean erregistratutakoa baino askoz ere handiagoa da, garai hartan % 3,5 izan baitziren. Araban jaiotako ume guztien artean % 28,8 multzo horretan sartu zen; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 19,5 eta % 20,5, hurrenez hurren. Emakume atzeritarrek, gainera, gazteago izaten dituzte umeak; emakume atzeritarren % 37,5ek 30 urte baino gutxiagorekin izan zuen ume bat, eta emakume espainiarren kasuan ehuneko hori % 11,1era jaisten da. Ama guztien batezbesteko adina 32,9 urte izan zen. Espainiarren artean 34,1 urte, eta atzeritarren artean, berriz, 30,8.


14. grafikoa. Jaiotzen bilakaera, amaren nazionalitatea kontuan hartuta. 2001-2016



2.4. ERDITZEEN EZAUGARRIAK

Ugalkortasun apalak eta ama izateko batezbesteko adina igotzeak zera ekarri dute ondorio gisa, emakumeen deszendentziaren zabalera izugarri murriztu dela. 2016an, jaiotzen % 10,6 bakarrik izan zen amaren hirugarren seme-alaba edo hortik aurrerakoa. 1976an ehuneko hori % 30 zen; horrek esan nahi du jaiotza-ordena horiek % 82,3 murriztu direla azken 40 urteotan. Alde horretatik, nabarmentzekoak izan dira 1990eko hamarkada eta 2000ko hamarkadaren arteko lehendabiziko bost urteak, hirugarren jaiotzak eta hortik aurrerakoak % 6 bakarrik izan baitziren. Urte horietan, laugarren seme-alabak eta hortik aurrerakoak 200 jaiotza baino ez ziren izan, ia batere garrantzirik gabeak. Pentsatzekoa den moduan, lehen eta bigarren ordenako seme-alaben jaiotzak ere behera egin zuen 1976 eta 2016 bitartean, nahiz eta proportzio apalagoetan (% 46 inguruan).

15. grafikoa. Jaiotzen bilakaera, jaiotzaren ordena kontuan hartuta. 1976-2016.



2016an, erditzeen 5,6 anizkoitzak izan ziren; hau da, aldi berean bi ume edo gehiago jaio ziren. Erditze anizkoitzen ehunekoa handitzen joan da 1986tik aurrera (urte hartan % 1,9 izan ziren), harik eta kontuan izandako azken zenbakira arte, hura izan baita handiena. Bilakaera hori azaltzeko, ama izateko adina gero eta handiagoa izatea hartu behar dugu kontuan; izan ere, ugalkortasun biologikorako aukerak gutxitu eta ernaltze-tratamendu klinikoetara jotzen baita. Horrek erditze anizkoitzak izateko aukerak handitzen ditu.

Egoera horren ondorioz etorritako beste egoera bat zera da, 35 asteko edo gutxiagoko haurdunaldien erditzeak ere ugartu egin direla. Guztira izandako erditzeen % 1,5 ziren 1986an, eta % 3,9 izaera igaro dira 2016an. Halaber, 42 asteko edo hortik gorako erditzeak % 6,6 ziren lehendabiziko urtean, eta gaur egun % 1era ez dira iristen.


3. HERIOTZAK

Heriotzen estatistikak erakusten du etengabe handitu dela Euskal Autonomia Erkidegoan izandako heriotzen kopurua, baita hilkortasun-tasa gordinak ere (heriotzak mila biztanleko). Nolanahi ere den, batez beste ugartu egin dira EAeko biztanleen bizitza-urteak. Hau da, handiagoa da 65 urte eta gehiagoko biztanleen kopurua, aurreko tarteetako biztanle gutxiago hiltzen baita; era berean, ugartu egin da biztanle zaharrenen arteko heriotzen kopurua, pixkanaka gehitzen joan baita hiltzeko aukera handiagoko adinetan dauden biztanleen kopurua.

3.1. HERIOTZEN BILAKAERA

Erkidego osoan % 42 handitu da heriotzen kopurua 1980 eta 2016 bitartean, eta hilkortasun-tasak ere antzeko hazkundea izan du. Baina lurraldeak banaka aztertzean, Araban eta Gipuzkoan bi egoera oso ezberdin izan direla ikusiko dugu. Araban gehitu da gehien heriotzen kopurua (% 64) baina hilkortasun-tasa % 29 bakarrik handitu da; Gipuzkoan, aldiz, % 53 ugartu da hildakoen kopurua eta tasa, berriz, % 51. Arrazoi bik eragin dute gehikuntza hori: batetik, 1980tik Arabako biztanleen kopuruak izan zuen hazkunderik handiena aztertutako aldi osoan eta, ondorioz, heriotzen kopurua ere ugartu egin zen; eta, bestetik, hein batean biztanleak gazteagoak izan dira eta, orduan, hark izan du hiru lurraldeetatik hilkortasun-tasa txikiena.

16. grafikoa. Hilkortasun-tasen bilakaera (%). 1980-2016



(a) Behin-behineko

Europar egoera ezberdina izan da: hilkortasun-tasek pixka bat behera egin dute edo beren horretan jarraitu dute. Gaur egungo Europar Batasuna aintzat hartuta, hilkortasun-tasa gordina % 10,6 izan zen 1980an eta, 36 urte igaro ostean, % 10era jaitsi zen. Europako herrialdeekin bi multzo egin daitezke, hilkortasun-tasek izan duten bilakaeraren arabera. Lehenengo multzoan, EAE sartuko litzateke, baina baita Mediterraneoko herrialdeak eta Europako ekialdekoak ere; horietan guztietan, gora egin du hilkortasun-tasak. Eta bigarren multzoan Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeak sartuko lirateke; horietan, 1980tik 2016ra, tasek pixka bat behera egin dute edo mantendu egin dira. Dena den, Europar 65 urteko eta gehiagoko biztanleen kopurua gero eta handiagoa denez, egunen batean herrialde guztietan gehituko dira hilkortasun-tasak.

Hala, denbora-tarte horretan Arabako hilkortasun-tasa apalagoak nabarmentzen dira, EAE osokoekin alderatuta. Nahiz eta goranzko joera antzekoa den, aldea ere handitu egin da. Hala, 1980an Arabako hilkortasun-tasa 0,7 puntu txikiagoa zen EAEkoa baino, eta 2016an alde hori 1,5era igo zen. Bizkaiko tasak beti egon dira EAE osokoen gainetik, baina alde horrek ez zituen 0,5 puntu baino gehiago kontuan hartutako denbora-tarte osoan.

Heriotzen datuen multzoan, oso nabarmena den datu bat zera da, 100 urte eta gehiago dauzkaten pertsonen heriotzen kopuruak gora egin duela: 1980an 17 soilik izan ziren, baina 2016an, aldiz, 294. Bestalde, 99 urtetik gorako pertsona gehienak emakumeak dira, talde horretan gertatzen baitira ehun urtetik gorako pertsonen hamar heriotzatatik zortzi 36 urte hauetan.

3.2. BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA


Jaioteguneko bizi-itxaropena bizi-luzeraren gutxi gorabeherako adierazlea da, une jakin batean adinen arabera dagoen hilkortasun-tasa ematen duena, urte edo epealdi jakin batean jaiotako biztanleria kontuan hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoko gizon zein emakumeek bizi-itxaropenaren etengabeko hazkundera izan dute, eta 2016an erregistratu dira mailarik handienak: 80,3 urte gizonen eta 86,2 emakumeek. Orain 36 urteko adierazleak (71 urte gizonentzat, 78,5 emakumeentzat) ikusita, bizi-itxaropena 7,7 urte igo da emakumeentzat eta 9,3 gizonentzat. Beste modu batean esanda, gizonetakoek 3,1 hilabete gehiago irabazi dituzte urte bakoitzean, eta emakumeek, aldiz 2,6 hilabete gehiago urte bakoitzean.

Sexu bien bizi-itxaropenaren arteko aldea 5,9 urte txikiagoa da, orain dela 25 urte izan zen alderik handienarekin konparatuta (8,6), batik bat heldurik gazteenen heriotza-tasa handien ondorioz. Dena dela, herrialde garatu gutxiak esan dezakete hain bizi-itxaropen handia daukatela, bereziki emakumeen kasuan, eta mundu zabalean Japoniak bakarrik gaindituko luke datu hori.

Era berean, 1980 eta 2010 bitartean bizi-itxaropenak izandako bilakaera eskualdeen arabera ere aztertu dezakegu (urte horretakoak dira eskura ditugun azken datuak). Hala, ikusiko dugu Arabako eskualdeek Bizkaiko edo Gipuzkoako datuak gainditu dituzte bizi-itxaropenari dagokionez, batez ere emakumeen kasuan. Nolanahi ere, azken 30 urteetan Bizkaiko emakumeetan izan dira hazkunde handienak.

Gizonen bizi-itxaropenean hazkunde handiena izan duen eskualdea Donostialdea izan da (9,1 urte) eta emakumeen bizi-itxaropenean Arabako Lautada (6,8 urte). Horren arrazoia, halere, zera da, 1980an indize txikiagoak zeuzkatela. Arabako gainerako eskualdeek 30 urtean gehikuntza txikiak izan dituzte bi sexuei dagokienez, eta aldaketa ia nulua izan da Arabako Haranetako gizonezkoen kasuan.

17. grafikoa. Jaiotzako bizi-itxaropenaren bilakaera, sexuaren eta urteen aldearen arabera. 1976-2016



Hala ere, bizi-itxaropenak 1980 eta 2010 artean izan duen bilakaeran daturik garrantzitsuenak, gehikuntzaz gainera, homogeneizatzeko joera izan da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuen artean bizitako urte kopurua homogeneizatzen joan da. Lurralde mailan eta gizonezkoen artean joera hori ondo ikus daiteke: 1980an Araba eta Bizkaiko bizi-itxaropenen arteko aldea 2,8 urtekoa zen eta 2010ean 1,6 urtekoa. Emakumezkoen artean ere gutxitu egin da kopuru hori, baina hein txikiagoan: lehen urte 1ekoa zen eta azkenean 0,6koa.

30 urteotan, bizi-itxaropen handiena eta txikiena izan duten eskualdeen arteko aldea kalkulatzeko, ikusten da gizonezkoen bizi-itxaropenak etengabe behera joan den bilakaera izan duela: 1980. urtean 8,4 urtekoa zen eta 2010. urtean 3,8 urtekoa. Bestalde, emakumeen arteko aldeetan ez da hain aldaketa nabarmenik gertatu: aldi horretan 2,9 urte gutxitu da.

Lurraldeak aztertuta, Arabako eskualdeetan izan da gehien bizi-itxaropenak doitzeko joera hori, nahiz eta hasieran ezberdintasunak askoz handiagoak izan. Gizonen artean, murrizketa handixeagoa izan da: 1980an aldea 6,4 urtekoa zen; 2010ean, aldiz 2,9 urtekoa; emakumeen artean 4,6 urte murriztu da (1980ko 5,9 urteetatik 2010eko 1,3 urteetara). Hala eta guztiz ere, Arabako eskualdeen arteko aldea da lurralde eta sexu guztietan handiena, bertan baitaude indize handienarekin eta minimoak.


Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualdeetan, aldiaren lehenengo urteetan ez zen hain alde handirik izan; hain zuzen, alderik handiena Gipuzkoako gizonen artean agertu da, 2,9 urtekoa. Hogeita hamar urte geroago, diferentzia txikiagoa zen; gutxieneko aldea 0,9 urte izatera iritsi zen bi lurraldeetako eskualdeetako gizonen artean.

3.3. BILAKAERA, HERIOTZAREN ERAGILEEN ARABERA

Osasun Mundu Erakundearen Gaixotasunen eta Osasunarekin lotutako Arazoen Nazioarteko Sailkapen Estatistikoaren arabera (10. berrikuspena), 2016an, heriotzen % 29,8 tumoreek eragin dute (6.320 heriotza). Ondoren, zirkulazio-sistemaren gaixotasunek eragin dute heriotza gehien, 5.733, % 27; eta urrunago izan dira arnasarekin eta digestioarekin lotutako gaixotasunen ondoriozko heriotza kopurua % 9,7 (2.555) eta % 4,4 (933), hurrenez hurren; azkenik, 784 pertsona hil dira kanpoko kausek eraginda.

16. grafikoa ikus daitekeenez, heriotza-kausen proportzioak aldatu egin dira azken 26 urteetan, batez ere tumore eta zirkulazio-sistemaren gaixotasunetan. 1990ean, azken horiek heriotzen % 36 eragin zuten; tumoreek, berriz, % 27. Eragile-multzo bi horiek izan duten bilakaeraren ondorioz, gero eta gehiago ari dira hurbiltzen: lehenengoak % 30 dira eta bigarrenak ehuneko horretatik behera daude. Arnas gaixotasunek, gorabehera apalekin, heriotzen % 10 inguru eragiten jarraitzen dute denbora-tarte osoan, eta gainerako kausek ere berdintsu jarraitzen dute, % 17 inguru horretan.


18. grafikoa. Heriotzen bilakaera, kausen arabera (%). 1990-2016



Aldi horretan, kanpoko kausak 1990ean % 6 izatetik 2016an % 3,7 izatera igaro dira. Murrizketa horren arrazoiak, neurri handi batean, zirkulazio-istripuak izan dira; hain justu, arrazoi hori dela eta izandako 381 heriotza izan ziren 1990ean, eta 2016an, berriz, 77. Serie osoko kopururik apalena 2014an erregistratu zen: 50 heriotza. Murrizketa horren ondorioz, alabaina, bere buruaz beste egitea bihurtu da hiltzeko kanpoko arrazoietatik lehenengoa 2006. urteaz geroztik. Aztertutako aldiaren azken urtean, beren buruaz beste egindakoak 103 kasu gehiago izan ziren, zirkulazio istripuetan hildakoak baino. Erorikoek eta itotzeek eragindako heriotzak 101 izan ziren 1990ean, eta 2016an, berriz, 318. Horren arrazoiak zera izan liteke, adineko pertsonak ugariago direla, arrazoi horiek eragindako heriotzen % 80, hain zuzen ere, 70 urteko edo hortik gorako pertsonetan gertatzen baita.

Azkenik, nerbio-sistemaren gaixotasunak eta gaixotasun mentalak nabarmendu behar dira; izan ere, horiek ugaritu baitira gehien 1990etik. Urte hartan, 704 pertsona hil ziren gaixotasun horien ondorioz, baina 2016an 2.849 pertsona. Gaixotasun degeneratiboen eragileen artean daturik esanguratsuenak Alzheimerren gaixotasunaren zabalkuntza izan da; gaixotasun horren kasuak bikoiztu egin dira 1999az geroztik (urte horretan hasi ziren izen horrekin identifikatzen). Hala, urte hartan 304 pertsonak izan zuten gaixotasun hori eta 2016an, berriz, 770 pertsonak. Gaixotasunen kategoria horren barruan, trastorno mental organikoen multzoa nabarmendu behar da (zahartzarokoak eta zahartzaro-aurrekoak), dementzia barne: 1.382 pertsonari eragin zien 2016an, eta 370 pertsonari 1999an.

19. grafikoa. Heriotzen bilakaera, generoaren eta heriotza-kausaren arabera. 1990-2016



Heriotzen banaketa ezberdina izan da gizonen eta emakumeen artean. 2016an, tumoreak zirkulazio-sistemako gaixotasunak baino gehiago izan dira gizonen artean (heriotzen % 35,5 eta % 25,3, hurrenez hurren), baina emakumeen artean bi gaixotasun-talde horien pisua trukatu egi da: gaixotasun kardiobaskularrek heriotzen % 28,8 eragiten dute eta tumoreak, berriz, % 23,8.

1990. urtean, egoera pixka desberdinxeara izan zen. Gizonen kasuan tumoreen eta zirkulazio-sistemako gaixotasunen kopuruak antzekoak izan ziren (biak %30), baina gero tumoreek heriotza gehiago eragin dituzte eta gainerako gaixotasunen kopurua murriztu edo mantendu egin da. Salbuespen dira nerbio-sistemako gaixotasunak eta trastorno mentalak.

Aurretik aipatu dugun moduan, azkeneko horiek hazkunde nabarmena izan dute 1999tik. Gainera, badirudi feminizatzen ari direla gaixotasun horiek. Bai dementzien ondoriozko bai Alzheimerren gaixotasunaren ondoriozko heriotza gehienak emakumezkoetan izan ziren; hain justu, 2016. urtean emakumezkoen heriotza horiek guztizkoaren % 66,8 eta % 68,3 izan ziren, hurrenez hurren.

Kanpoko arrazoen taldean, zirkulazio-istripuek eta bere buruaz beste egiteek eragin oso nabarmena izan dute gizonezkoen artean: 1990 eta 2016 bitartean zirkulazio istripuen ondorioz hildako 5.531 pertsonetatik % 75 gizonak ziren eta aldi horretan bere buruaz beste egin zuten 4.434 pertsonetatik % 73 izan ziren gizonezkoak.

4. EZKONTZAK


Tradizioz, seme-alabak ezkondu ostean izan dira; beraz, ezkontzen kopuruak eta ezkontzeko adinak mugatzen zuten emakumeen ugalkortasuna. Ezkontza gutxiago izanez gero edo emakumeak beranduago ezkonduz gero, jaiotza gutxiago izaten ziren, antisorgailu eraginkorrik ez zegoenez. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, ezkonduetako bikoteetan gertatzen dira oraindik ere jaiotzen % 56. Hori dela eta, senar-emazteen azterketak garrantzitsu izaten jarraitzen du, jaiotze-tasaren eta demografiaren analisia egiteko garaian.

4.1. EZKONTZEN BILAKAERA

Euskal Autonomia Erkidegoan 7.387 ezkontza izan dira 2016an sexu desberdineko pertsonen artean. 1978tik izandako kopururik apalenetako bat da, urte hartan 15.108 ezkontza erregistratu baitziren. 2013an izan zen denbora-tarte horretako ezkontza kopururik apalean, 7.209; hain zuzen ere, 2016an baino 178 gutxiago. EAEn mila biztanleko 3,4 ezkontza izaten dira. Kopuru hori Europako txikienetako bat da, eta Italia, Portugal eta Espainiako Estatuan erregistratutakoen antzekoa.

Azken 38 urteetan, bi epealdi desberdin nabarmendu dira ezkontzen kopuruaren bilakaeran nahiz ezkontza-tasa gordinen bilakaeran. 1978tik 1985era jaitsiera handia gertatu zen: % 37,5eko ezkontzetan eta % 38koa tasetan. Bigarren denbora-tartea 1985 eta 2004 bitartekoa da: 9.800 jaiotza inguru izan zen, eta 2000. urtean, berriz, 10.500 izan ziren. Alabaina, urte horietan ezkontza-tasa ‰ 4,7 inguru izan zen. Azken denbora-tartean, 2004 eta 2016 bitartean, ezkontzen kopuruak % 26,5 egin du behera, eta beste % 29 ezkontza-tasak ere. Hala, nahiz eta azken hiru urteetan apur bat egonkortu diren ezkontzak, murrizteko joera ageri da, batez ere bi faktore direla eta: izatezko bikoteak ugaritzen ari direlako eta ezkontza gehien gertatzen diren adin-tarteak ez direlako horren jendetsuak.

20. grafikoa. Ezkontza-tasa gordinen bilakaera. 1978-2016



(a) Behin-behineko

1978tik, hiru lurraldeetako ezkontzen bilakaerek antzeko ereduak jarraitu dituzte, baina intentsitate ezberdinarekin. Arabak hasieran ezkontza-tasa gordin altuenak izan zituen hiru lurralde historikoetatik, eta, aldiaren amaieran, txikiena, 38 urte horietan ia % 59,1 murriztu baitzen lurralde horretako tasa; Gipuzkoak, aldiz, lehenengo 12 urteetan tasarik txikienak izan zituen eta 2001. urteaz gero altuenak, aldi horretan % 45,2 murriztu zen bere tasa.

Lehenengo ezkontzen indizeari erreparatuz gero (eztei kopuruaren indize sintetikoa), zera ikusten dugu: 2015ean gizonen % 46,3 eta emakumeen % 50,8 ezkonduko lirateke urte horretan ezkontzeko egoerek modu mugagabeen iraungo balute; horrek esan nahi du jaitsiera handiak egon direla 2005eko indizeekin alderatuta (% 53,8 eta % 58,5 hurrenez hurren). Beste ikuspuntutik begiratuta, datu horiek esan nahi dute gizonen erdiak baino gehiago edo emakumeen erdiak baino apur bat gutxiago ezkongabe geratuko direla. Egoera oso bestelakoa da orain dela 38 urtekoarekin alderatuta; orduan, azkenean pertsonen % 100 ezkontzen ziren.

Eustaten Inkesta Demografikoaren bidez, ezkontza-tasa ikuspegi horretatik erreparatuta aztertu daiteke; hau da, bost urteko talde berean jaiotako pertsonak, eta egiaztatzen duenez, gizonetan 1926 eta 1930 bitartean jaiotakoetan gertatu zen behin betiko ezkongabeen ehuneko apalena (% 4); emakumeen kasuan, ostera, hurrengo bosturtekoan jaiotakoen artean gertatu zen. Handik aurrera, ehuneko hori handitu egin da, eta gizonezkoetan % 28ra eta emakumeetan % 21era iristen da, ezkontza-historia amaitutzat eman daitekeen belaunaldiari dagokionez, hau da, 1971 eta 1975 bosturtekoan jaioak.

Horrek ez du esan nahi bikoteak sortzea neurri berean murriztu denik; izan ere, 1971 eta 1975 artean jaio eta bikotean bizi direnen artean, % 15ek izatezko bikote gisa egiten du, eta 20 urte lehenago jaiotakoen artean, berriz, % 2 ziren. Halaber, nabarmentzekoa da izatezko bikoteen ugalkortasun-tasa nahiko apala dela; izan ere, 2016an % 54k bakarrik izan zituen seme-alabak, eta, hortaz, seme-alaben kopurua ez da 1era iristen.

Era berean, ezkontzek 1980 eta 2010 bitartean eskualdeetan izandako bilakaera ere aztertu ahal izan da. Urte horretakoak dira, hain zuzen, eskualdekako azken datuak. Lehendabizi nabarmentzeko moduko datua zera da, Arratia-Nerbioi eskualdean zirela ezkontza-tasa handienak 1980an bai gizonetan, bai emakumeetan; hain zuzen ere, 15 urtetik gorako % 90k bukatuko lukete ezkondu. Beste muturrean Debabarrena legoke, % 50etik beherako ehunekoekin. Hala, alde handia ageri da eskualdeen arteko ezkontza-portaeran. Hogeita hamar urte igaro ostean, alde horiek dezente murriztu egin dira, eskualde guztietan gutxitu baita ezkontza-tasa. Maximoak eta minimoak orain Debagoienean (% 60) eta Arabako Haranetan (% 40) ageri dira, hurrenez hurren.

Esanguratsua da 1980. urtean ezkontza-tasa oso txikiak zituzten eskualdeetan (Debabarrena, Debagoiena edo Tolosa) ez dela ageri joera oroko hori; hau da, horietan, ezkontza kopuruak behera egiteko ordez, antzeko jarraitu du edota ugari egin dira. Urte horretan eskualdeetan izan zen ezkontza kopurua beste eskualde guztiek 2010. urtean izan duten indizeetara heldu zen. Hala, 1980. urtean Arabako Lautadako ezkontza-tasa, adibidez, Debabarrenekoa baino % 40 handiagoa zen; 2010. urtean, aldiz, azken eskualde honetako biztanleak Arabako Lautadakoak baino % 25 gehiago ezkondu dira.


Ezkontzen kopurua sexuak bereizita aztertzean, beste datu esanguratsu bat lortu da. 1980an, eskualde ugari (besteak beste, Arabako Lautadak, Bilbo Handiak eta Donostia) indize handiagoa izan zuen gizonezkoen artean; baina asko murriztu dira bi sexuen arteko aldeak, eta azken urte horretan emakumeek izan zuten lehenengo ezkontzen kopuru handiena.

4.2. EZKONTZEN EZAUGARRIAK

2016. urtean sexu desberdineko 8.028 bikote ezkondu ziren eta horietako 7.729 Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan zen (1.127 Araban, 3.869 Bizkaian eta 2.561 Gipuzkoan); beste 471 bikote, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joan ziren bizitzera. Ezkondu eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizitzera joan zirenek batez ere Madrilera, Bartzelonara eta Frantziara jo zuten. Helburuari dagokionez, aldeak daude, hiru herrialdeetan egindako ezkontzen artean; Arabakoak, batez ere, Madrilera, Bartzelonara eta Errioxara ezkontzen dira; Bizkaikoek Madril, Kantabria eta Bartzelona dituzte nahien; Gipuzkoakoak Frantzia, Madril eta Bartzelona aldera egiten dute. Bikoteak ezkondu ziren tokien arabera, 7.275 ezkontza Erkidegoan bertan egin ziren eta 753 Erkidegotik kanpo.


Ezkonberrien jatorri geografikoari dagokionez, ezkontzen % 78,4 erkidegoko udalerri bereko biztanleen artean egin ziren. Haien artean, bikoteen % 65ek etxebizitza partekatzen zuten ezkondu aurretik, eta % 9 eraikin berean bizi ziren. Gainera, bikoteen % 5,4 inguruko udalerrietakoak ziren eta % 16,2 geografikoki urrunago dauden udalerrietakoak.

21. grafikoa. Ezkontzak, ezkontideen bizilekuen arteko hurbiltasunaren arabera (%). 2016



Gero eta handiagoa izan da azken urteotan ezkondu aurretik elkarrekin bizi ziren bikoteen ehunekoa. 1996an gutxieneko kopuruak zuen bizileku bera ezkondu baino lehen, % 19k bakarrik, baina 2007. urtean ehunekorik altuena lortu zen, % 59. Harrezkero, hurrengo urteetan % 49ra iritsi da. Azken urteotan ezkontzen kopuruak behera egiteko arrazoietakoa bat zera izan da, izatezko bikoteak ez ezkontzea, legez formalizatu baitute euren arteko harremana.

22. grafikoa. Ezkontza zibilen bilakaera (%). 1990-2016




2007tik aurrera, ezkontza zibilak erlijiosoak baino gehiago izan dira. 2016an, 6.014 ezkontza zibil eta 1.373 ezkontza erlijioso egin ziren, eta azken horietatik 10 ez ziren katolikoak izan. Urteak igaro ahala, ezkontza zibil gero eta gehiago izan da: 1990ean ezkontzen % 23,3 mota horretakoak izan ziren eta 2016an % 81,4. Lurralde historikoen arabera, Bizkaian egiten da ezkontza zibil gehien (% 82), eta Gipuzkoak eta Arabak tankerako ehunekoak dauzkate, apalxeagoak badira ere: % 80,9 eta % 80,6, hurrenez hurren. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta kanpoan ezkondu zirenen kasuan, berriz, ehunekoa % 67ra jaitsi da.

Ezkontza zibilen nagusitasun horren ondorioz, ostiraletan egiten diren ezkontzen kopurua larunbatetan egiten dinenetara gerturatzeko ari da; izan ere, egun horretan ohikoagoa da ezkontza zibilak egitea, eta erlijiosoak, berriz, larunbatetan egiten dira (kopurua hori murrizten ari da 1996tik). Hala, 2016an ezkontzen % 44 larunbatean egin zen, eta % 42 ostiraletan; 1996an, berriz, portzentajeak % 78 eta % 16 izan ziren, hurrenez hurren.


Ezkontza aukeratzeko garaian, historikoki urtarokotasun handia nabarmendu izan da, eta lau hilabete-talde ezarri litezke, hiruhileko naturalekin bat ez datozenak. 1996tik hona, ekaina, uztaila eta iraila aukeratzen dira gehien ezkontzeko, eta ezkontzen % 46 hil horietan izan dira. Hurrengo hilabeteak maiatza eta urria dira, % 20 horietan izaten baita. Hirugarrena martxoa, apirila, abuztua eta azaroa izango lirateke, % 16rekin, eta laugarrena, azkenik, urtarrila, otsaila eta abendua (huraxe izan da proportzioa handitu duen bakarra, 1996an % 7,5 izatetik, 2016an % 11,2 izatera, ezkontza zibilak direla eta).

23. grafikoa. Ezkontzen hileko mugimendua, (100 oinarri = batezbestekoa) 2016



Hiru lurraldeetan, ezkontzek banaketa hori ageri dute, baina Arabak proportzio handiagoa du uztailan eta irailean beste bi lurraldeek baino. Udako hilabeteen artean abuztuko ezkontzen kopuruak beherakada handia izan du, baina EAetik kanpo egindako ezkontzen artean hilabete hori aukeratzeko da, sakabanatuta dauden familiak batzeko.

24. grafikoa. Ezkontzak, hilabetearen eta ospatzeko moduaren arabera (%). 2016




Ezkontza guztien artean ezkontza zibilen proportzioa hilen arabera banatuz gero, ezkontzen kopuruaren kontrako joera ikus daiteke: zenbat eta txikiagoa izan ezkontzen kopurua orduan eta gehiago izan dira ezkontza zibilak; hori gertatu da, batez ere, abenduan, urtarilean eta otsailean. Abuztua hilabete berezia da. Hilabete horretan ezkontzen kopuruak behera egin du baina ezkontza erlijiosoaren bigarren ehunekorik handiena ere hilabete honetan izan da.

4.3. EZKONBERRIEN EZAUGARRIAK

Ezkontzen kopurua jaisteaz gain, euskal gizartearen ezkontzaren gaineko ezaugarriak garrantzitsuenak ezkontideen adina igotzea da. 1986tik, senarren batez besteko adina 8,4 urte igo da, eta emazteena, berriz, 9,5.

2016an, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 37 urte zen; emakumezko ezkongabeena, oster, 34,8. Adin horiek Europako herrialdeetan erregistratutakoak baino handiagoak dira. Suediak du batez beste tankera bereko ezkontza-adina, baina urtebeteko aldearekin bi sexuetan. Badirudi, era berean, murriztu egin direla bi sexuetan ezkontzeko adinen aldeak: 1986an 3,3 urte zen, eta 2016an, berriz, 2,2.

25. grafikoa. Lehen ezkontzako batez besteko adinaren bilakaera. 1986-2016




Adin-taldearen arabera, gizonezkoen kasuan, 35 eta 39 urte bitarteko gizonen kopuruak hazkunde handia izan du 2013 bitartean, eta gairitu egin ditu 25 eta 29 urtekoak (azken horiek ziren nagusi 1997 bitartean). Baina, era berean, 40 urte eta gehiago zituzten gizon ezkonberriek ere gairitu dituzte 2016an; azken horiek 1986an % 4,5 izatetik % 29,3 izatera igaro dira 30 urteren buruan.

Emakumeen artean, 35 eta 39 urteko ezkonberriek beranduago hartu zieten aurrea 25 eta 29 urte bitarteko ezkonberriei: hain zuzen, 2013an. Horrenbestez, tarte horrek oraindik ere badu pisurik. Bi sexuetan, 30 eta 34 urte bitarteko taldea da jendetsuena, baina, orain 10 urte ingurutik hona, haien pisua murrizten hasi da ezkonberri guztien artean; hala, nabarmenagoa da beherakada hori

gizonezkoetan, eta horrek eragin dezake etorkizunean gaintitu egingo dituztela 35 eta 39 urteko gizonek. Bestalde, 25 urtetik beherako gizonak % 24 ziren 1986an, eta % 50,2 emakumeak. 2016an ia desagertu egin dira gizonezkoak (% 0,6) eta emakumeak ere oso gutxi dira (% 1,9).

26. grafikoa. Ezkontzen bilakaera, ezkonberrien adina aintzat hartuta (%). 1986-2016




Ezkondu aurretik ezkontideek zuten egoera zibilar dagokionez, esan behar da ezkontzen % 86,6 ezkongabeen artean izan direla. Ezkongabe zegoen emakumeen ehunekoa (% 86,5) gizonezkoen (% 86,6) antzekoa izan zen. Alargunak, berriz, ez dira heltzen ezkonberri guztien % 1era. Alargunen artean, berriro ezkondu ziren gizonak emakumeak baino gehiago izan ziren, nahiz eta kopuru horiek oso txikiak izan. Dibortziatuta zeuden ezkonberriak ez dira heldu ezkontza guztien % 13ra, baina horien kopuruak nabarmen egin du gora 1996. urteaz geroztik: % 117 igo da gizonen artean eta ia % 150 emakumeen artean. 2016an berriro ezkondu diren gizonezko eta emakumezko dibortziatuen % 43,7 dibortzio-epaia lortu eta lau urte bete baino lehen ezkondu dira.

2016an ezkondu diren bikoteen nazionalitateari begiratuz gero, 1.213 ezkontzatan (guztizkoaren % 15,5) ezkontideetako bat bederen atzerritarra zen. Bestalde, kasuen horietatik % 44,6an emazteak zeukan atzerriko herriartasuna, eta % 26,5ean senarrak; gainerako % 28,9an, berriz, bi ezkontideak ziren atzerritarrak. Kopuru horiek kontraste egiten dute 1996ko egoerarekin; izan ere, urte hartan izandako ezkontzen % 3,4tan bakarrik zuen ezkontideren batek kanpoko herriartasuna.

Ezkontza horietan ageri izaten diren atzerriko herrialde ohikoenak Kolonbia (107), Bolivia (81), Brasil (68), Nikaragua (61), Maroko (60) eta Ekuador (46) izan ziren. Atzerriko senar ezkonberrien kasuan,

83 Marokokoak ziren, 71 Kolonbiakoak, 49 Boliviakoak, 33 Ekuadorrekoak, 31 Portugalgoak eta 30 Frantziakoak.

**27. grafikoa. Ezkontza homosexualen bilakaera, ezkonberrien adina aintzat hartuta.
2005-2016.**



(*) 2005eko uztailaren 1etik

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak 2005ean onartu ziren legez, eta, harrezkero, haien bilakaerak gorabeherak izan ditu. Kopururik handiena 2016an izan zuten (180), baina halako ezkontzak gehien izan ziren bigarren urtea (169) legezkotu osteko hurrengoia izan zen. Emakumeen eta gizonen arteko ezkontzen kopuruaren arteko diferentziak gizonezkoen arteko ezkontzen alde egiten zuen 2012ra arte. Urte hartan, ezkontza homosexualetan emakumeen artekoak gailendu ziren, eta denbora-tarteko azken bi urteetan erregistratu da alderik handiena, gainera.

5. MIGRAZIOAK

Migrazio-mugimenduen gaineko Estatistikak urtero ematen digu informazioa Euskal Autonomia Erkidegoan ohiko bizilekua aldatzea dakarten mugimenduei buruz. Eustatek urtero lantzen du estatistika hori 1988tik, eta, hari esker, duela gutxiko migrazio-fenomeno horrek gure erkidegoan izan duen garapena azter daiteke.


5.1. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK ETA -SALDOAK

2016an, 217.064 kasutan aldatu dira ohiko bizilekuak Euskal Autonomia Erkidegoan:

- horietatik, 96.478 kasutan udalerrian bertan aldatu ziren bizilekuak;
- erkidego barruko mugimenduak (helmuga Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan dutenak) 49.205 izan ziren;
- era berean, kanpoko 40.126 immigrazio izan ziren; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik EAEra etorritakoak (horien artean, 19.060 atzerriko herrialdeetatik etorriak);
- azkenik, kanpora joandako 31.255 emigrazio gertatu ziren; hau da, gure autonomia-erkidegoko udalerrri batetik gure erkidegotik kanpora izandako mugimenduak (haietatik 12.163k atzerrira egin zuten).

Laburbilduz, euskal biztanleriaren % 9,9k bizileku aldaketaren bat izan du 2016an. Mugikortasun hori kasuen % 67an Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan izan da, eta gainerako kasuetan erkidegotik kanporakoa.

28. grafikoa. Migrazio-saldoaren bilakaera. 1988-2016




Migrazio-saldo osoak zera adierazten du, gure erkidegoan bizileku-aldaketen eraginez gertaturiko sarreraren eta irteeren arteko aldea.

1988tik 2000ra bitartean migrazio-saldoa negatiboa izan zen 1988tik 1991ra % 75era murriztu zen, immigrazioen (horien kopurua gehitu zen) eta emigrazioen (pixkanaka gutxitzen joan ziren) eraginez. Halere, beherapen hori moteldu egin da hurrengo urteetan, eta 2000n lortu da Euskal Autonomia Erkidegoko saldoaren zeinua aldatzea.

Hala, 2000tik aurrera migrazio-saldo positiboak izan ziren (2012an eta 2013an izan ezik), batez ere immigrazio gehiago izan zelako. 1988tik maximoa 2007an lortu arte, immigrazioen bolumena 5 aldiz handitu zen; emigrazioak, berriz, % 65,1 handitu ziren denbora-tarte berean. Hori dela eta, azkeneko urtean gertatu zen migrazio-saldo positiborik handiena, 16.835 pertsonarekin. 2007tik aurrera, saldo positiboak eta negatiboak gertatu ziren, immigrazioak murriztearen eta emigrazioak ugaritzearen ondorioz. Nolanahi ere den, 2016an saldo hori mende honen hasierako mailetara gerturatu zen atzera.

Lurraldeka, Bizkaiak 4.405 pertsona gehiago izan zituen 2016an; beraz, kopuru absolutuetan hark zeukan migrazio-saldo altuena. Baina, 2007. urtearen aldean, saldoa % 42 murriztu zuen. Beste alde batetik, Gipuzkoak 2.787 lagun irabazi zituen migrazioaren ondorioz; 2007an, aldiz, 5.623 biztanle irabazi zituen. Arabak ere biztanleak irabazi ditu migrazio-mugimenduekin: 1.679 lagun. Bederatzti urte lehenago, aldiz, arrazoi horregatik beragatik 3.580 biztanle irabazi zituen.

29. grafikoa. Migrazio-tasa garbiaren eboluzioa (%). 1988-2016



Migrazio-tasa garbia immigrazio- eta emigrazio-tasen arteko alde gisa kalkulatzen da, urte bakoitzeko eta urte horretan batez beste diren biztanleak aintzat hartuta; hala, aztertzeko unitate espazialei buruzko datuak alderatzeko aukera ematen du, edozer dela ere haien populazio-neurria.

Hala, 1988 eta 1999 bitartean, migrazio-tasa garbiak balio negatiboak izan zituen, baina poliki-poliki handitzen joan ziren tasa horiek, harik eta 2000an balio positiboa lortu arte. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoa bidaltzaile izatetik hartzaile izatera igaro zen. Balio positiboak 2011ra arte erregistratu ziren. Tasa maximoa 2007an izan zen, ia ‰ 8, alegia. Azkeneko lau urteetan zera ikusten da, bilakaera erratiko samarra izan dela bi migrazio moten artean, batez ere emigrazioen kasuan. Horrek zera eragiten du, 2012 eta 2013 bitartean tasa negatiboa erregistratzea, eta 2015 eta 2016 bitartean positibo izatera igaro zirela berriro ere.


Lurralde bakoitzeko migrazio-tasa garbiak aztertuta, ikusten dugu Arabak izan duela urtez urte eta etenik gabe migrazio-balantze positiboa. Urte askoan, gainera, EAEko batezbestekoa baino askoz handiagoa izan da, 2012an izan ezik, balio hori ‰ 5,3ra jaitsi baitzen. Gipuzkoak ia ‰ 9,4ko tasa negatiboa zuen 1988an, eta balio positiboetara igaro zen 1999an. Balio positiboak eutsi die harrezkero urtero, baita 2012an ere, beste lurraldeek bezalaxe. Bizkaiko tasek baldintzatu dituzte EAE osokoak, haien pisua dela eta. Hala, negatibo izateari utzi eta positibo izatera igaro ziren 2000an, eta negatibo izan dira, halaber, hamarkada honetako azken bi urteetan ere. 2016an nolabaiteko konbergentzia gertatu da hiru lurraldeetako tasetan, baina ezin liteke aurreikusi joera horrek jarraituko ote duen etorkizunean, kontuan hartuta hamarkada honetako lehendabiziko urteetan gertatu diren aldakuntzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko migrazio-tasa garbia ‰ 4,1 izatea zenbatetsi da 2016an, autonomia-erkidego guztien batezbestekoa baino handiagoa, ‰ 2,4 baitzen hura. Tasarik handienak dauzkaten autonomia-erkidegoak Katalunia, Madril eta Kanariak dira, ‰ 6 gainditu baitute; Balearrak, aldiz, ‰ 13,6ra heldu dira.

5.2. KANPOKO MIGRAZIOAK

2016an, ohiko 71.381 bizileku-aldaketa izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien eta Estatuko gainerako udalerrien eta atzerrikoen artean

30. grafikoa. Migrazioak, motaren eta helmugako edo jatorriko autonomia-erkidegoaren arabera. 2016




Kanpoko mugikortasun geografikoak Euskal Autonomia Erkidegoko mila biztanletik 33ri eragin zion 2016an. Mugikortasun mota hori ezberdina da hiru lurralde historikoetan; Arabak izan zuen kanpoko mugimendu kopuru handiena, % 38,2, nahiz eta kanpo-mugimenduen kopuru txikiena erregistratu; Gipuzkoan, berriz, % 32,2 eta Bizkaiko biztanleriaren % 31,7k egin du erkidegotik kanpoko migrazioen bat. EAETik kanpoko mugikortasuna apur bat txikiagoa izan zen, gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero. Izan ere, batez beste mila biztanletik 37 mugitu dira gainerako autonomia-erkidegoetan.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik edota atzeritik etorritako pertsonen kopurua 40.126 izan zen 2016an. Atzeritik izandako immigrazio handiena 2007an erregistratu zen, bai bolumenean, bai immigrazio osoarekin pisuari dagokionez (% 55,2). Hala, ikusten da atzeritik etorritako pertsonen kopuruak % 34,3ra egin duela behera 2012an, baina, urte horretatik aurrera, berriro ere berreskuratu egin da, harik eta 2016an % 47,5era igaro arte.

2016an, gure erkidegora etorritako pertsona guztien artean 22.351 atzerriko etorkinak dira, hau da, etorritako guztien % 55,7; 2007an % 71 izan ziren. Horrez gain, EAEn dauden atzerriko etorkinen kopuru hori % 32,7 txikiagoa izan da 2007arekin alderatuta. Hala, 6.200 kasutan (guztien laurdenak pasatxo), beste autonomia-erkidego batzuetatik etorriak dira atzerriko nazionalitatea duten biztanle etorkin horiek.

2016an, kalkulatu da kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 31.225 emigrazio-kasu gertatu zirela. Jatorria gure autonomia erkidegoko udalerri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpora duten mugimenduak izan ziren. Horietako 12.163 kasuren destinoa atzerria izan zen, gainera. Euskal Autonomia Erkidegoko emigranteentzat erakargarrien diren autonomia-erkidegoak honako hauek dira: Madril, Gaztela eta Leon, Katalunia, Kantabria, Andaluzia, Nafarroa eta Valentziako Erkidegoa (ordena horretan). Zazpi artean, EAE uzten duten pertsonen % 44 jasotzen dute.

31. grafikoa. Migrazio-saldoen bilakaera, jatorriaren eta destinoaren arabera. 1988-2016



2000tik hona izan diren nazionalizatzeko prozesuek, batez ere Latinoamerikatik etorritako pertsonen eragin dietenek, zera eragin du, jaiotzez atzerriarrak direnak 2.053 gehiago izatea nazionalitatez atzerriarrak direnak baino immigranteen artean, eta 2.427 emigranteen artean. Hala, 2007an gertatu zen kanpo-migrazio gehien 1988tik (aldeak 296 eta 177 izan ziren, hurrenez hurren).


1988tik 2016ra, Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpo-migrazio saldoak ezberdin jokatu dute aztertutako eremu geografikoaren arabera. 2012an eta 2013an izan ezik, atzerriko saldoak beti izan dira positiboak, baina 1997ra arte oso urriak ziren, ez baitzituzten 2.000 pertsona gainditzen. Urte hartatik aurrera eta, batez ere, 2000. urtetik aurrera, saldo horiek nabarmen egin zuten gora: 2007an goia jo zuten, 18.000 pertsonatik gora, eta urte hartatik aurrera behera egin zuten; 2012an, gutxi gorabehera 14.000 immigrante gutxiago izan ziren, goia jo zuen urte harekin alderatuta. Bilakaera horren ondorioz, 2000. urtean gertatu zen lehenengo aldiz migrazio-saldo guztiz positiboa.

Espainiako gainerako aldeekiko saldoak negatiboak izan dira 1988tik 2008ra arte. 1988an izan zen saldo negatiborik handiena, ia 11.000 pertsona. Beste urteetan, 4.000 inguruan egonkortu zen. Eustatek estatistika hau egiten duenetik, 2008an gertatu zen lehenengo aldiz (49 pertsonarekin) beste autonomia-erkidego batzuetatik EAera etorritako immigrazioa handiagoa izatea, EAetik haietara bidalitako emigrazioa baino. Hurrengo urteetan, saldo hori handitzen joan da: 2011n 6.638 pertsona izan ziren. Nahiz eta 2015ean 947 pertsonara arte jaitsi zen, hurrengo urtean 1.000 pertsona baino gehiago igo zen berriz.

5.3. BARRUKO MIGRAZIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean sortutako migrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerri bat xede dutenak. Edota udalaren barruko migrazioa, udalerri berekoak, alegia.

32. grafikoa. Udalerrri barruko migrazioen bilakaera (1988=100). 1988-2016



2016an gure erkidegoko eskualdeen artean izan ziren barruko migrazioei dagokionez, eta, zentzuzkoa den bezala, lurralde bakoitzeko hiriburua dagoen eskualdeetan izan zen mugimendu gehiago. Hots, Arabako Lautada, Bilbo Handia eta Donostialdea dira barruko migrazioen % 62,2ren xedea eta horien ia % 61,4ren jatorria. Gainera, EAEko hiru hiriburuek barruko migrazioaren % 24 eragiten dute, eta % 23 jasotzen. Lurralde bakoitzeko hiriburuak eta gainerako udalerriak alderatzen baditugu, ikusiko dugu Gasteizek destinoen % 40,7 biltzen duela, eta Arabako jatorrien % 35,6. Bilboko eta Donostiako ehunekoak, berriz, % 20 ingurukoak dira bi mugimendu moten kasuan.

1995 eta 2000 bitartean, geratu egin zen udalerri barruko etxebizitza-aldaketen hazkunde etengabea (hazkunde hori 1992tik erregistratu zen EAEn, eta 2001ean berriro ere hasi zen). Bizkaia eta Gipuzkoak 1988. urtean izan zituzten udalerri barruko migrazioak hirukoiztu egin ziren 2006an, baina, urte horretatik aurrera, Bizkaian nolabait ere egonkortu egin zen udalerri barruko migrazioen kopurua, eta Gipuzkoan, berriz, handitu. Arabak, aldiz, gorako joerarekin jarraitu zuen, eta maximoak 2010 eta 2012an izan zituen; harrezkero beherantz egin dute mugimendu horiek.

2016an udalerri barruko 96.478 bizileku-aldaketa izan ziren, eta horietatik ia erdiak (% 47,6) hiribururen batean izan ziren.

Hiriburu bakoitzeko udalerri barruko migrazioen bolumenak alde handiak ditu, lurraldekoaren aldean. Esate baterako, Donostiak Gipuzkoako helbide-aldaketen % 35,5 hartu ditu; Bilbok, berriz, Bizkaikoen % 42,6. Gasteizek, bestalde, Araban izandako udalerri barneko migrazioen % 85,3 hartu ditu.

5.4. MIGRAZIOAREKIN DUEN LOTURA


Aurreko kapituluetan zehaztu ditugun migrazio-prozesuen ondorioz, 2016an EAEko biztanleen % 43,6, biztanleria- eta etxebizitza-estatistikaren arabera, bere jaiotze-udalerrian bizi da –populazio sedentario izenez deitzen zaio–; hala, biztanleen % 33,2 jaiotzekatik kanpoko beste udalerri batean bizi da, baina EAEn barruan. Hau da, barne-migratzaileak dira. Bestalde, % 23,2 beste autonomia-erkidego batzuetakoak edo atzerrikoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumeen % 58k bizilekua aldatu du uneren batean; dela barne-migrazio baten ondorioz, dela immigrazioak eraginda. Gizonezkoen kasuan, ehuneko hori txikiagoa da: % 54,6.

Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunak badu alderik hiru herrialdeetan. Bizkaian ageri da populazio sedentario gutxien (% 41,6), eta Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 44,7 eta % 46,3 dira, hurrenez hurren. Barne-migrazioari dagokionez, Bizkaia nabarmentzen da era berean, populazioaren % 36 EAEko beste udalerriren batekoa baita. Araba da Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako pertsona gehien (% 32) dituen eta barne-migrazio gutxien (% 23,3) egiten den herrialdea.

Eskualdeei erreparatuta, Markina-Ondarroa (% 53,8), Debagoiena (% 53,2) eta Urola Kosta (% 51,9) nabarmentzen dira, populazio sedentario handiena duten eskualde gisa. Halaber, Arabako Errioxa (% 43), Arabako Lautada (% 34,2) eta Arabako Haranak (% 32) dira populazio immigrantearen ehuneko handienak dituzten eskualdeak. Azkenik, Plentzia-Mungian (% 58,7) eta Gorbeialdean (% 55,3) bizi da, konparazioz, EAEko beste udalerri batzuetatik aldatutako pertsona gehien, eta bertako biztanleen proportzioa gainditzera ere iristen dira.

33. grafikoa. Populazioa, eskualdeen eta migrazio-harremanaren arabera (%). 2016




Guztira 471.943 pertsona bizi dira 2016an azken hamarkadan iritsitako udalerri berean. Horietatik 289.161 (hau da, % 61,3) aurretik EAEko beste udalerri batean bizi ziren; % 13,2 atzeritik zuzenean etorriak ziren eta gainerakoak (% 25,5) beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsiak ziren.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako pertsonen artean, honakoak nabarmentzen dira: Gaztela eta Leon (17.188), Kantabria (12.761), Madril (12.320), Katalunia (9.548), Andaluzia (8.450) eta Nafarroa (7.929). Aldiz, Ceuta eta Melilla aldetik 352 baino ez ziren etorri, eta Balear uharteetatik, berriz, 2.000 baino gutxiago.

6. ONDORIOAK

Azaldutako fenomeno demografikoek mugatzen dituzte gizarte jakin bateko biztanleen tamaina eta osaera. Neurriari dagokionez, 1981eko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria eta 2016koa alderatzen baditugu, ikusiko dugu 35.000 pertsona gehiago direla termino absolutuetan, baina, denbora horretan guztian zehar, hazkundera ez dela lineala izan. Hain justu, 2000ra bitarte murrizten joan zen, eta, urte horretatik aurrera, nabarmen joan zen handitzen, harik eta 2011n goia jo arte (orduan izan zen aztertutako aldi osoko maximoa). Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).


34. grafikoa. Saldo begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan (%). 1988-2016



Eustatek migrazioei buruz egindako lehenengo estatistika 1988. urtekoa da; bada, urte horretatik aurrerako datuak hartzen baditugu kontuan honakoak agertzen zaizkigu: 1988. eta 1989. urteetan, saldo begetatiboak positiboak izan arren, migrazio saldoak oso negatiboak izan ziren, eta, ondorioz, biztanleen kopuru osoa gutxitu egin zen. 1990etik 1999ra, atzerakada demografikoa gertatu zen: bi saldoak negatiboak ziren eta are negatiboagoa izan zen 1994 eta 1995 bitartean. 2000, 2001 eta 2002an, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, eta migrazio saldoa, ordea, positiboa; nolana ere, azken horri esker biztanleen kopurua handitu egin zen. Eta 2003tik 2011ra bitartean, saldo begetatiboa ere positiboa izan zen. Migrazio saldoak datu oso altuak izan zituen; eta 2007. urtean izan zen hazkunderik handiena. Hamarkada honetako urte guztietan 2003az geroztik saldo begetatiboa ere positiboa izan da, baina oso ahula. 2012 eta 2013an bi osagaiek ere nahikoa portaera desberdinak izan dituzte: begetatiboa balio positiboetan ibili da lehendabiziko urtean eta negatiboan bigarreanean, eta migrazioa, berriz, negatiboa bietan, nahiz eta lehendabizikoan ia nulua izan.


Azkeneko hiru urteetan, migrazio-saldoen kopuruak konpentsatu egin ditu saldo begetatiboak, berriro ere balio negatiboetara bueltatu direnak.

35. grafikoa. Saldo begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera Araban (%). 1988-2016



Saldoek izandako bilakaera desberdina izan da lurraldearen arabera, eta Araba nabarmenduko genuke, saldo begetatiboa eta migrazio-saldoa positiboak izan baitira aztertutako aldi osoan. Halere, 2012 salbuespena izan zen: migrazio-saldok begetatiboa gainditu zuen, eta hura izan urte bakarra Arabak populazioa galdu zuena denbora-tarte osoan. Urte horretatik aurrera, Arabako populazioaren hazkunde-osagaiak portaera ohikoagora bueltatu dira.


36. grafikoa. Saldo begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera Bizkaian (%). 1988-2016



Bizkaiak (bere tamaina kontuan hartuta) baldintzatu du neurri batean erkidego osoko portaera. Baina berezitasun batzuk ere izan zituen: saldo begetatibo positiboak 1988-1990 bitartean eta 2008an bakarrik izan zituen, eta oso txikiak. Migrazio-saldoa, berriz, negatiboa izan zen 1988 eta 1999 bitartean, eta positiboa 2000tik aurrera (2012 eta 2013an izan ezik, orduan ere negatiboa izan baitzen). 2015ean eta 2016an saldo begetatibo negatiboa handitu egin da, eta 1988tik erregistratutako balio handiak izan ditu. Nolanahi ere, 2016an migrazio-saldoak konpentsatu egiten du, begetatiboa ia bikoiztuta.

Bestalde, Gipuzkoak ere izan zuen saldo negatiboetatik positiboetarako bilakaera; baina lurralde horretako migrazio-saldo negatiboak hiru lurraldeetako handienak izan ziren eta migrazio saldo positiboak, berriz, txikiak. Hori dela eta, Gipuzkoak ez zuen ia 30 urte lehenagoko biztanleen kopurua berreskuratu.

37. grafikoa. Saldo begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera Gipuzkoan (%). 1988-2016



Oro har, EAEko biztanleen kopuruak gora egin du XXI. mendeko lehen hamaika urteetan, eta lortu du 1980ko eta 1990eko populazio-galera berreskuratzea. Hala, 2012ko urtarrilaren 1era bitartean, hazkunde horren nolabaiteko galera nabari da, populazioaren bolumena zehazten duten bi saldoak murriztu izanagatik. Une horretatik aurrera, populazio-bolumenean diren gorabeherak migrazio-saldoek eragindakoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren balizko hazkundera immigrazioaren portaeraren arabera gertatuko da. Immigrazioa zailagoa da aurreikusten, kanpoko eta barruko faktore ekonomiko kointuralekin dependentzia handiagoa izaten baitu; aldiz, aurreikus liteke saldo begetatiboa balio negatiboetan ibiliko dela datozen urteetan, gerta baitaiteke ugalkortasun-maila apalak denboran irautea, eta adinen egiturak, pertsona larrien proportzio handiagoarekin, heriotza-tasa handitzea ekarriko baitu.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.eus